2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilea

2026ko ekaina

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

Aurkibidea

1. AURKEZPENA....4

2. METODOLOGIA....5

3. TESTUINGURU NORMATIBO ETA ESTRATEGIKOA....7

4. ERRONKAK ETA AUKERAK....16

5. ERREFERENTZIA MARKOA....22

5.1 Estrategian eta orain arte burututako Ekintza Plan Eragileetan jasotako Helburuak....23

5.2 Estrategia gidatzen duten Ardatzak....24

5.3 Estrategian txertatutako Gidalerroak....25

6. 2026-2030 III. EKINTZA PLAN ERAGILEA....26

6.1 Parte hartzen duten, Sail, Erakunde autonomo eta erakunde publikoak....27

6.2 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilean jasotako Helburu Estrategikoak....28

6.3 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilean txertatutako neurriak....29

6.3.1 Planaren 1go Ardatzean txertatutako Neurriak: Soldata/ordua desberdintasuna murriztea....35

6.3.2 Planaren 2.Ardatzean txertatutako Neurriak: Lanaldiari dagokionez desberdintasuna murriztea....60

6.3.3 Planaren 3. Ardatzean txertatutako Neurriak: Heziketa eta Gizarte Sentsibilizazioa....77

6.3.4 Planaren 4. Ardatzean txertatutako Neurriak:Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 101

7. GOBERNANTZA EREDUA 126

7.1 Aurrekariak 126

7.2 Justifikazioa 126

7.3 Helburuak 127

7.4 Gobernantzarako egitura instituzionalak 127

8. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA 129

1. AURKEZPENA

Soldata-arrakala gure gizartean oraindik indarrean dauden emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen ondoriorik larrienetako bat da eta, era berean, desberdintasun hori betikotzen duen faktoreetako bat. Soldata-arrakalaren aurka egitea justizia sozialarekiko konpromisoa da. Arazo konplexua da, egiturazkoa, eta askotariko arrazoietan du jatorria. Hortaz, mota guztietako neurriak aplikatu behar dira esku hartzen duten askotariko faktoreak hainbat dimentsiotatik jorratzeko, eta beharrezkoa da eragiten dien eragile guztien eta gizarte osoaren inplikazioa eta konpromisoa izatea. Halaber, gizonen eta emakumeen arteko soldata-desberdintasunekin amaitzeak onurak dakartza, bai ekonomian, bai gizartean oro har.

2018an onartutako Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategiaren helburua da 2030erako, gure Autonomi Erkidegoa soldata-arrakalarik txikiena duten Europako herrialdeen artean egotea. Estrategia honek, lehentasunezko helburua den: “soldata-berdintasunean aurrera egiteko neurri ekonomikoak eta sozialak sustatzea, enpresetan soldata-gardentasuna sustatzea, eta soldata-diskriminazioari aurre egitea” bilatzen du. Izan ere, helburu horrek emakumeen ahalduntzeari eta autonomia ekonomiko handiagoari ekarpena egiteaz gain, hazkunde ekonomikoa, produktibitatearen igoera eta bizitza familiarraren, pertsonalaren eta lanekoaren kontziliazio erantzunkidea sustatzen ditu. Era berean, Emakume eta Gizonen arteko berdintasuna lortzeko 2030 Estrategiak, bere helburuen artean, honakoa jasotzen du: enplegu-tasari dagokion emakume eta gizonen arteko arrakala gutxienez erdira murriztea, eta soldatari dagokion emakume eta gizonen arteko arrakala 5 puntu murriztea.

Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategia bultzatze aldera, hainbat Ekintza Plan Eragile egin dira: 2020ko I. Ekintza Plan Eragilea, 2022-2025eko II. Ekintza Plan Eragilea eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilea. Plan horretatik abiatuta, inplikatutako Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomoek neurriak eta ekintzak gauzatzen joan dira, Euskadin soldata-arrakala murrizteko estrategian ezarritako jarraibide eta helburu espezifiko nagusiak bultzatzen laguntzeko.

2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilea hau, Euskadi soldata-arrakala txikiena duten Europako herrialdeen artean kokatzeko beste urrats bat da. Beraz, III. 2026-2030 Ekintza Plan Eragileak Eusko Jaurlaritzako sailek soldata-arrakala desagerrarazten laguntzeko datozen urteetan txertatuko dituzten ekintzak biltzen ditu. Berritasun gisa, Plan honetan lehen aldiz parte hartu dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordean ordezkatuta dauden Eusko Jaurlaritzako sail, erakunde autonomo eta erakunde publiko guztiek; izan ere, orain arte batzuek baino ez zuten Euskadin soldata-arrakala murrizteko Estrategiari eta bere Ekintza Plan Eragileei buruzko neurriak zehazteko eta betearazteko betebeharra.

2. METODOLOGIA

Atal honetan Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen dokumentu hau egiteko jarraitu den lan-metodologia deskribatzen da.

Lan-prozesua, gutxi gorabehera sei hilabetetan garatu (2025eko irailetik 2026ko martxora) eta hiru fasetan egituratu da. Zehazki, orain arte egindako Ekintza Plan Eragileak ebaluatzeko lehen fasea, egoeraren diagnostikoa egiteko bigarren fasea eta III. 2026-2030 Ekintza Plan Eragilea osatzeko hirugarren fasea.

1. FASEA. Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2020ko eta 2022-2025eko Ekintza Plan Eragilearen ebaluazioa

Fase honetan, Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2020ko eta 2022-2025eko Ekintza Plan Eragileen neurrien eta jardueren betetze-maila eta emaitzak aztertu dira. Eusko Jaurlaritzako sailek estrategiaren helburuekin lotuta egin duten lanari buruz egiten duten balorazioa ezagutzea, eta urte horietan lortutako lorpenak zehaztea, izan da Ebaluazioaren helburua. Horretarako, orain arte egindako jarraipen-txostenetan bildutako informazio guztia aztertu da, eta neurrien ardura duten sailen datu zehatzak bildu dira galdetegi baten bidez. Gainera, bi saio egin dira Ekintza Plan Eragileetan jasotako helburuen betetze-maila elkarrekin ebaluatzeko. *Ebaluazioari dagokion informazioarekin, erabilitako metodologia eta ondorio nagusiak jasotzen dituen dokumentu independente bat sortu da.*

2.FASEA Egoera Diagnostikoaren osaketa

Fase honen helburua diagnostiko bat egitea izan da, emakumeek eta gizonek soldata-arrakalaren arloan egun duten egoera eta etorkizuneko joerak eta erronkak jasotzeko. Horretarako, dokumentuak eta estatistika-iturriak aztertu dira, soldata-arrailaren kuantifikazioa eta hura aztertzeko garrantzitsuak diren beste adierazle batzuk zehatz-mehatz ezagutzeko. Gainera, jardunaldi bat egin da gaian adituak diren pertsonekin, arrakalaren egungo egoerari eta egoera hori zehazten duten faktoreei buruz hausnartu ahal izateko. Espazio horri esker, arrakala zentzu zabalean ulertu ahal izan da, baita hura desagerrarazteko etorkizuneko neurriei buruz hausnartu ere. Bereziki baliagarria izan da orain arte arrailari lotutako jarduera-neurririk egin ez duten sailentzat. *Diagnostikoari dagokion informazioarekin, erabilitako metodologia eta ondorio nagusiak jasotzen dituen dokumentu independente bat sortu da.*

3. FASEA 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen Diseinua eta osaketa

Ebaluazioa eta diagnostikoa erreferentziatzat hartuta, fase honetan Eusko Jaurlaritzako sailei lagundu zaie 2026-2030 Ekintza Plan Eragile berria diseinatzen, estrategiari jarraipena emateko, hurrengo urteetan garatu beharreko neurriak identifikatzen lagunduz. Aurreko faseetako talde-saioak eta sail bakoitzari ad hoc emandako laguntza izan dira plan hau egiteko oinarria.

2026-2030 aldirako III. Ekintza Plan Eragile honetarako lan-prozesua, aurretiko ebaluazioa eta diagnostikoa barne, sei hilabeteko lanean garatu da, 2025eko irailetik 2026ko martxora arte. Emakundek eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak gidatu dute lan hori.

3. ARAU-ESPARRU ETA TESTUINGURU ESTRATEGIKOA

Azaroaren 27ko Gobernu Kontseiluak Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategia eta 2020 Ekintza Plan Eragilea onartu zituen. Estrategia horren helburua da 2030erako, Euskadi, soldata-arrakalarik txikiena duten Europako herrialdeen artean egotea.

Emakumeen eta gizonen artean balio bera edo berdina duen lanagatik ordainsari berdina jasotzeko eskubidea legeriak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan berariaz jasotako oinarrizko printzipioak aitortu eta babesten dute, eta Europako araudiak ez ezik, nazioarteko, estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparruek ere babesten dute.

Euskadin soldata-arrakala murrizteko estrategian jasotzen den bezala, haren garapena **arau-esparruaren barruan egituratzen da,** eta bat dator nazioartean soldata-berdintasunerako eskubidearen eta emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-diskriminaziorik ezaren inguruan garatutako **estrategia eta plan nagusiekin.**

III. 2026-2030 Ekintza Plan Operatiboa erreferentziazko arau-esparru eta esparru estrategiko horretatik abiatzen da diseinuan, azken hiru urteetan izan diren arau-berrikuntza nagusiak ere kontuan hartuta; horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

1. *1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena*, soldata-diskriminazioa berariaz aipatzen duten hainbat artikulu dituena (35. art., 44. art., 46. art).

2. *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiak (2024), bere* 11 jomugen artean batek ezartzen du soldata-berdintasuna lortzea. Zehazki, Euskadin generoko soldata-arrakala 5 puntu murriztea ezarri du lehentasuntzat. Erakunde arteko eta dimentsio anitzeko helburua da, eta Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2020-2030 estrategiaren garapenari lotuta dago. 2030erako lortu nahi den 5 puntuko murrizketak generoko soldata-arrakala % 17,60an jartzea ekarriko luke.

3. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/970 (EB) Zuzentarauak,* gutxieneko betekizunak ezartzen ditu gizonen eta emakumeen artean balio bereko lan edo lan bat egiteagatik ordainsari-berdintasunaren printzipioaren aplikazioa eta 2006/54/EE Zuzentarauaren 4. artikuluan ezarritako diskriminazio-debekua indartzeko, bereziki ordainsarien gardentasunaren eta hori betetzeko mekanismoen sendotzearen bidez. Aplikazio-eremuan, sektore publiko eta pribatuko enpresa eta erakundeei aplikatuko zaiela jasotzen du.

Berdintasunari eta Ordainsarien berdintasunari buruzko arau-esparru eta esparru-estrategikoa:

Nazioartekoa

- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala,** 1945eko abenduaren 10ekoa.
- **Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OIT) 100. Hitzarmena,** 1951koa.
- **Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen Nazioarteko Ituna** (NBEren Biltzar Orokorra), 1966koa.
- **Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Nazio Batuen Konbentzioa (CETFDCM),** 1979koa.

Europakoa

- **Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatua. 157. artikulua** (lehen, Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren 141. artikulua).
- **Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna.**
- **75/117/EE Zuzentarauarekin hasitako Erkidegoko araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 5eko 2006/54/EE Zuzentarau bateratuarekin amaitzen dena.** Barne hartzen ditu: ordainsari-berdintasunari buruzko zuzentaraua; laneko tratu-berdintasunari buruzko zuzentarauak; eta gizarte-segurantzako lanbide-erregimenetan berdintasunezko tratuari buruzko zuzentarauak.
- **Batzordearen 2014ko martxoaren 7ko Gomendioa**, gizonen eta emakumeen arteko ordainsari-berdintasunaren printzipioa indartzeari buruzkoa.
- **2022/2381 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena**, 2022ko azaroaren 23koa, kotizatutako sozietateen administratzaileen eta horiekin lotutako neurrien arteko genero-orekari buruzkoa. **(*)**
- **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/970 (EB) Zuzentaraua, enpresek eta administrazio publikoek nahitaez bete beharrekoa. (*)**
- **2024/1500 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena**, enpleguaren eta okupazioaren arloan berdintasun-erakundeei buruzko arauei buruzkoa. **(*)**
- **2024/1018 (EB) Erabakia, Kontseiluarena, 2024ko martxoa 25ekoa,** Lanaren Nazioarteko Erakundearen indarkeria eta jazarpenari buruzko 2019ko Hitzarmena (190 zk.) berresteko dena.**(*)**

Estatukoa

- **Espainiako Konstituzioa** (1978)
- **Langileen Estatutoa.**
- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.**
- **6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa,** Enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko neurriena.
- **901/2020 Errege Dekretua, berdintasun-planak arautzen dituena**, eta **902/2020** Errege Dekretua, emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunari buruzkoa, urriaren 13koa.
- **2/2024 Lege Organikoa, abuztuaren 1ekoa**, emakumeen eta gizonen ordezkaritza paritario eta orekatuari buruzkoa. **(*)**
- **1026/2024 Errege Dekretua, urriaren 8koa,** enpresetan berdintasuna eta LGTBI pertsonen diskriminaziorik eza sustatzekoa. (*)

Euskadikoa

- **4/2005 Legea, otsailaren 18koa,** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa**.**
- **1/2023 Arau-Dekretua, martxoaren 16koa,** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena. **(*)**
- **Euskadiko Enpleguari buruzko 15/2023 Legea,** 2023ko abenduaren 21ean onartua**. (*)**
- **34/2024 EBAZPENA, martxoaren 22koa,** Euskadiko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko jarraibidea onartzen duena **(*).**
- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia. (*)**

OHARRA: azken hiru urteetan ordainsari-berdintasunaren eta berdintasunaren arloan izandako arau-esparruko erreferentzia nagusiak markatzen dira (*).

Jarraian, berdintasunaren eta ordainsari-berdintasunaren arloan azken hiru urteetan onartutako arau-esparruko erreferentzia nagusiak jasotzen dira:

3.1 Arau-Esparru Komunitarioa EB.

2022/2381 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2022ko azaroaren 23koa, kotizatutako sozietateen administratzaileen artean genero-oreka hobeari eta lotutako neurriei buruzkoa.	Zuzentarau honen helburua kotizatutako sozietateetako administrazio-kontseiluetan genero-oreka hobetzea da, genero-berdintasuna sustatzeko gutxieneko kuotak eta neurriak ezarriz. Hori lortzeko, hainbat neurri ezarri dira, besteak beste: ▪ Gutxieneko kuotak: 2026ko ekainaren 30a baino lehen, gutxienez kontseiluko kideen % 33k ordezkaritza txikiena duen sexukoak izan behar dute. ▪ Kontseilari exekutiboak sustatzea: Ehuneko hori lortzen ez duten sozietateek helburu kuantitatiboak ezarri beharko dituzte kontseilari exekutiboen arteko genero-oreka hobetzeko.
2023/970 (EB) Zuzentaraua, lan beragatik edo balio bereko lanagatik gizonen eta emakumeen arteko ordainsari-berdintasunaren printzipioa indartzeari buruzkoa, ordainsarien gardentasun-neurrien eta hori betetzeko mekanismoen bidez.	Zuzentarau honek gutxieneko baldintzak ezartzen ditu Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 157. artikuluan finkatutako lan beragatik edo balio bereko lanagatik gizonen eta emakumeen artean ordainsari-berdintasunaren printzipioa (aurrerantzean, «ordainsari-berdintasunaren printzipioa») eta 2006/54/EE Zuzentarauaren 4. artikuluan ezarritako diskriminazio-debekua indartzeko, bereziki ordainsarien gardentasunaren eta hori betetzeko mekanismoen indartzearen bidez. Haren aplikazio-eremuan, Zuzentarau hau **sektore publiko eta pribatuko enpresa eta erakundeei aplikatuko zaiela jasotzen da.** Gainera, definizio zehatzak ezartzen ditu alderdi erabakigarriei buruz: ordainsaria, ordainsari-maila, ordainsari-arrakala, ordainsari-maila ertaina, ordainsari-arrakala ertaina, balio bereko lana, zuzeneko diskriminazioa, zeharkako diskriminazioa, lan-ikuskaritza eta berdintasuna sustatzeko erakundea. Jazarpena eta sexu-jazarpena barne hartzen ditu, diskriminazioaren kontzeptuan, eta estatu kideek beharrezko neurriak hartzeko betebeharra ezartzen du, enplegatzaileek ordainsari-egiturak izan ditzaten, lan beragatik edo balio bereko lan batengatik ordainsari berdina izango dutela bermatzeko.

2024/1500 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024, enpleguaren eta okupazioaren arloko berdintasun-organismoei buruzko arauei buruzkoa.	Berdintasuna eta diskriminaziorik eza Batasunaren funtsezko baliotzat hartzen dira, eta Batasunak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu behar duela eta bere jarduera guztietan sexuagatiko diskriminazioari aurre egin behar diola jasotzen da. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak 21. eta 23. artikuluetan bereizkeriarik ez egiteko eskubidea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea babesten ditu. Batasunak hainbat zuzentarau onartu ditu diskriminazioari aurre egiteko. Zuzentarau honen helburua da tratu-berdintasuna sustatzeko erakundeen ('berdintasun-organoak') funtzionamendurako gutxieneko baldintzak ezartzea, haien eraginkortasuna hobetzeko eta haien independentzia bermatzeko, Europako Parlamentuaren 2006/54/EE (3) eta 2010/41/EB (4) zuzentarauetatik eratorritako tratu-berdintasunaren printzipioaren aplikazioa indartzeko.
KONTSEILUAREN 2024/1018 (EB) ERABAKIA, 2024ko martxoaren 25ekoa, estatu kideei Lanaren Nazioarteko Erakundearen 2019ko Indarkeriari eta Jazarpenari buruzko Hitzarmena (190 zk.) berresteko gonbitea egiten diena.	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 153. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatian eta 2. paragrafoan eta 157. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 2019ko Indarkeriari eta Jazarpenari buruzko Hitzarmena berresteko gonbita egiten zaie estatu kideei, lan-ingurunea hobetzeari dagokionez, langileen osasuna eta segurtasuna babesteko eta enplegu- eta okupazio-gaietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna babesteko.

3.2 Estatu mailako Arau-Esparrua

2/2024 Lege Organikoa, abuztuaren 1ekoa, emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekideari eta presentzia orekatuari buruzkoa.	V. kapituluan, bederatzigarren eta hamargarren artikuluetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/2381 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten du (2022ko azaroaren 23koa, kotizatutako sozietateen administratzaileen arteko genero-oreka hobeari eta horiekin lotutako neurriei buruzkoa). Horretarako, lehenengoan, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bategina aldatzen du; bigarrenean, berriz, Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legea aldatzen du. Helburu nagusia da erakunde kotizatuek beren administrazio-kontseiluetan ordezkaritza txikiena duten sexuen gutxieneko presentzia-atalaseak lortzen dituztela zaintzea. Horiek betetzen direla ziurtatzeko, atalase horietara iristen ez diren enpresa kotizatuei kontseilariak hautatzeko prozesuak aldatu behar zaizkie, eta, aldi berean, entitateei beraiei informazioa eman behar diete, beren administrazio-kontseiluetan emakumeek eta gizonek duten presentziari buruz.
1026/2024 Errege Dekretua, urriaren 8koa, enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako neurri planifikatuak garatzen dituena.	2023ko martxoaren 1ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena. Lege horren helburua da haien eskubideak garatu eta bermatzea, diskriminazio-egoerak desagerraraziz, Espainian sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero-adierazpena, sexu-ezaugarriak eta familia-aniztasuna askatasun osoz bizi ahal izango direla ziurtatzeko. Lege hori aurrerapauso garrantzitsua izan zen berdintasunerako eta justizia sozialerako bidean, aukera ematen baitu pertsona guztien berdintasunerako eskubidea bermatzeko, bereziki lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualena, bai eta haien familiena ere, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluaren aplikazio-eraginkortasuna hobetzeko asmoz. Onarpen horren garrantziaren zati bat LGTBI pertsonen benetako berdintasun eragingarrirako eskubidea bermatzen eta sustatzen duten neurriak aurreikustea da, besteak beste, enpresan.

3.3 Euskadi mailako Arau-Esparrua

1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina.	39. artikuluan ezartzen duenez, «Euskal herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatu behar dituzte, bai norberaren edo besteren konturako lana lortzeko baldintzetan, bai lan-baldintzetan, prestakuntzan, sustapenean, ordainsarietan eta kontratua iraungitzean». Bestalde, ordainsari-diskriminazioari buruzko 44. artikuluak honako hau dio, besteak beste: «Autonomia Erkidegoko Administrazioak baliabideak jarriko ditu erakunde publikoen, enpresen, enpresa-erakundeen eta sindikatuen eta, oro har, herritarren eskura, ordainsari-diskriminazioari aurre egiteko eta balio bereko lanagatik ordainsari berdina jasotzeko printzipioa bermatzeko; bereziki, jarraibide, irizpide eta metodologiak, lanpostuak baloratu, sailkatu eta ebaluatzeko eta sustapen profesional ez-sexista egiteko, bai eta informazio- eta aholkularitza-zerbitzu bat eta kexak edo salaketak bideratzeko zerbitzu bat ere». Enplegu publikoan ere jarri du arreta, 46. artikuluaren bidez: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere langileekiko negoziazio kolektiboan, enplegu publikoaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak planteatu behar ditu. Era berean, gizarte-solaskideen arteko elkarrizketa sustatu behar du, sektore pribatuari buruzko negoziazio kolektiboan ere horrelako neurriak sar daitezen, batez ere ordainsari-diskriminazioa ezabatzeko neurriak.
34/2024 EBAZPENA, martxoaren 22koa, Euskadiko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko jarraibidea onartzen duen erabakia argitaratzea xedatzen duena.	Jarraibide hau "Euskadin Soldata-arrakala Murrizteko Estrategiaren" barruan sartzen da. Estrategia honen helburua 2030rako Euskadi soldata-arrakala txikiena duten Europako herrialdeen artean kokatzea da. Aplikazio-eremua Euskadiko sektore publiko osoarena da, hau da, Administrazio Orokorrarena berarena eta sektore publikoko erakundeena, eta kontratu guztiei eragiten die, dela obrei, hornidurei, zerbitzuei eta abarri. Gainera, emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-diskriminazioa saihesteko kontratu-betebeharra ezartzen da.

15/2023 Euskadiko Enplegu Legea, 2023ko abenduaren 21ean onartua.	Lege honek lan duina izateko eskubidea aitortzen du, herritarren enplegagarritasuna hobetzeko zerbitzuak eta programak ezartzen ditu, eta pertsonek enplegagarritasunari dagokionez dituzten eskubideak eta betebeharrak definitzen ditu. Lehentasunezko arreta-kolektiboei arreta ematen die, eta begirada luzaroko langabezian, desgaitasuna duten pertsonengan, emakume eta gazteengan eta gizarte-bazterkerian jartzen du, inor atzean ez geratzeko lehentasunezko helburuarekin. Bere printzipioen artean jasotzen du aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza pertsonek lan duin bat lortzeko eta mantentzeko orduan, bai eta enplegu-zerbitzu eta -programak ere, aurrez aurre nahiz bitarteko elektronikoen bidez, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonei eta kolektiboei zuzendutako ekintza positiboko neurrien kalterik gabe.
Emakunderen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia	2024an onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren 11 jomugen artean soldata-berdintasuna lortzera bideratutako helburu bat ezartzen da. Zehazki, *Euskadin generoko soldata-arrakala 5 puntu murriztea ezarri du lehentasuntzat*. Europar Batasuneko araudiaren esparruan ordainsari-berdintasunaren printzipioari emandako lehentasuna jarduera-ildoak zuzentzen dituzten estrategietan ere islatzen da, bai nazioartean bai Europar Batasunean: Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda (Garapen Jasangarrirako Helburuak): 5. eta 8. helburuak, Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizitzako Berdintasunerako Europako Gutuna, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Batzordearen 2010-2015 Estrategia, 2011-2020 aldirako Genero Berdintasunaren aldeko Europako Ituna, 2016-2019 aldirako Genero Berdintasunerako Konpromiso Estrategikoa eta Europar Batasunaren 2017-2019 aldirako Ekintza Plana, Gizonen eta Emakumeen arteko Soldata Arrakala Jorratzeko.

2018an, Estrategia XI. Legegintzaldirako Gobernu Programaren konpromisoen artean kokatu zen. Soldata-diskriminazioari aurre egiteko eta lan-ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra bultzatzeko konpromisoa berariaz nabarmendu zen, bai eta ordainsari-berdintasunean aurrera egiteko, enpresetan soldata-gardentasuna sustatzeko eta soldata-diskriminazioari aurre egiteko neurri ekonomiko eta sozialak bultzatzeko konpromisoa ere.

Eusko Jaurlaritzak modu koordinatuan lan egin du Estrategia honen eta bere Ekintza Plan Eragileen inguruan. Izan ere, emakumeen eta gizonen soldata-berdintasunerantz aurrera egitea, justiziako gaia izateaz gain, gizarte osoarentzat onuragarria da, eta, aldi berean, hazkunde ekonomikoari, produktibitatearen igoerari eta familia, pertsona eta lana bateragarri egiteari laguntzen dio.

Hala izan da hurrengo legegintzaldietan, gaur egunera arte. Hain zuzen, XIII. Legegintzaldi honetarako aurkeztutako Gobernu Programan, soldata-arrakalaren aurkako txoke-planaren aplikazioa sustatzeko eta enpresetan eta erakundeetan berdintasuna sustatzeko, konpromisoa zehazki hartu da.

2024ean, XIII. Legegintzaldi honetan, V ARDATZETAN oinarritzen da bere Gobernu Plana:

- I. ARDATZA PERTSONAK ERDIGUNEAN
- II. ARDATZA HAZKUNDE-ETA ONGIZATE-EREDUA
- III. ARDATZA ERALDAKETA ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA
- IV. ARDATZA BIZIKIDETZA, MEMORIA ETA GIZA ESKUBIDEAK
- V. ARDATZA AUTOGOBERNUAN HAZTEA

Ardatz hauen artean, II ARDATZA nabarmentzen da, non lankidetza publiko-pribatuko esparru batean, Euskadiren berrindustrializazioa bultzatzeko baldintzak sustatzearekin duen konpromisoagatik, eta ekonomia berriak industria-ehun moderno, dinamiko, garatu eta iraunkor bat bultzatzeko eskaintzen dituen aukerei esker. Aldi berean, kalitatezko enplegu baten bidez aberastasuna sortzea eta banatzea ahalbidetuko duten baldintzak, zerbitzu publiko sendoak sostengatzea eta inor atzean ez geratzea bermatuko duten gizarte-politikak garatuz.

II Ardatz honetan jasotako konpromisoen artean, *Enpleguan berdintasun eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzea (66.Konpromisoa),* honako ekimenak txertatzen dira:

- Elkarrizketa Sozialerako Mahaitik soldata-arrakala murrizteko estrategia bat sustatzea, hura eragiten duten arrazoi guztiak jorratzeko,
- Soldata baxuenak, erantzukizun-postuetan dauden emakumeen kopurua edo industrian eta teknologian dauden emakumeen kopurua, kontziliazio erantzunkidea, nahi ez den kontratazio partziala murriztea eta emakumeen jarduera-tasa handitzea bultzatzea,

- Lanean kontziliazio-politikak sustatzea eta Genero-ikuspegiari arreta berezia eskaintzea, emakumeen gizarte- eta lan- errealitatea eta errealitate intersekzionala aztertuz.

II. Ardatzean jasotako konpromisoen artean ere, *Euskadin errotutako 5.0 industria eta 2028ko Industria Plana (*72.konpromisoa), bere 4.ekimenak zehazki honakoa jasotzen du: industria-sare eta sare ekonomiko osoa indartzea, inolako arrakala sortzea saihestuz eta lehiakortasunaren hobekuntzan sakonduz

III. Ardatzak, berriz, Pertsona guztien arteko Bizikidetza eta Errespetuari dagokiona, Euskadin emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta giza eskubideen defentsa gure gizartearen funtsezko gai bihurtu direla jasotzen du. Ardatz honetan, *Soldata-arrakalaren aurkako talka-planaren aplikazioa eta enpresetan eta erakundeetan berdintasuna sustatzea* (126.konpromisoa), hemen bere bost ekimenak nabarmendu daitezke*:* a) Lan-merkatu inklusiboa sustatzea, pertsona guztiei aukera-berdintasun eraginkorra eta diskriminaziorik eza bermatzeko; b) Enpresetan eta erakundeetan berdintasunaren alde indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak zaintzea, berdintasun-planetan arreta berezia jarriz; c) Norberaren bizitza, lana eta familia uztartzea ahalbidetuko duen enpresa-kultura berri bat sustatzea; d) Emakumeei etorkizuneko eskari handieneko lanbideetan sartzen laguntzea, historikoki gizonek okupatutako arloetan parte har dezaten sustatuz; eta e) Gazteentzako prebentzio-programen sorrera eta hedapena indartzea, jaietan eta gaueko aisialdian indarkeriaren prebentzioa lantzeko.

4. ERRONKAK ETA AUKERAK

2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearekin batera, Diagnostiko dokumentu bat eta aurreko planen Ebaluazio Dokumentu bat osatu dira, dokumentu independente gisa aurkezten direnak. Bi dokumentatuetatik, Plan honetan kokatzen diren ekintzak ulertzeko eta bideratzeko esparru gisa balio duten hainbat ondorio atera daitezke. Laburbilduz, datozen urteetan soldata-arrakala murrizteko politikek eta estrategiek gidatu beharko dituzten erronka nagusiak aurkezten dira (Diagnostikoan jasotako informazioa kontuan hartuta), bai eta Estrategiaren eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen garapen operatiboari begira sailek identifikatutako erronka nagusiak ere (aurreko planen ebaluazioa kontuan hartuta).

Gizarte-, ekonomia- eta lan-joeren azterketari esker, datozen urteetan **soldata-arrakala murrizteko politikek eta estrategiek gidatu beharko dituzten erronka nagusiak** identifika daitezke. Batez ere, honako alderdi hauek nabarmendu behar dira:

ZAHARTZEA ETA ZAINTZA LANEN BERRANTOLAKETA

Erronka: Zaintza-lanen eskariaren hazkundeak sektorearen feminizazioa eta prekarizazioa indartu dezan saihestea.

Aukera: Zaintza profesionalizatzea eta sektore estrategiko gisa duen garrantzia nabarmentzea, sistema publikoa zabalduz eta erantzunkidetasun soziala eta instituzionala sustatuz.

TRANTSIZIO TEKNOLOGIKOA ETA EKOLOGIKOA

Erronka: Arrakala digitala eta emakumeek STEAM arloetan eta teknologiaren eta ingurumenaren arloko enplegu berrietan duten parte-hartze baxua zuzentzea.

Aukera: Digitalizaziorako eta trantsizio ekologikorako politiketan berdintasuna txertatzea, STEAM prestakuntza, emakumeen lidergoa eta etengabeko ikaskuntza sustatuz, batez ere arlo horiei bideratuta.

ENPLEGUAREN ERALDAKETAK ETA LAN EGITEKO MODU BERRIAK

Erronka: Ordaindutako lan-denboraren eta ordaindu gabekoaren arteko banaketa desorekatua desagerraraztea.

Aukera: Kontziliazio erantzunkiderako neurriak sustatzea (guraso-baimen parekideak, zaintza-zerbitzuak, ordutegi arrazionalak) eta aldaketa kultural soziala eta antolakuntzakoa sustatzea, erantzunkidetasunera bideratzeko.

ERAKUNDEAREN KULTURA

Erronka: Emakumeen lanaren gutxiespena desagerraraztea eta soldata-berdintasuna lortzea egindako balio bereko lanagatik.

Aukera: Ordainsarien gardentasuna indartzea eta lanpostuak genero-ikuspegitik ebaluatzea, berdintasuna enpresaren kulturan eta kudeaketan integratuz.

HEZKUNTZA ETA ALDAKETA KULTURALA

Erronka: Emakumeak eta gizonak prestakuntza-ibilbide eta ibilbide profesional desorekatuetara bideratzen dituzten estereotipoak gainditzea.

Aukera: Genero-estereotiporik gabeko hezkuntza sustatzea haurtzarotik, bokazioan oinarritutako orientazio parekidea indartzea eta emakumezko erreferenteak ikusaraztea arlo maskulinizatuetan.

ERANTZUNKIDETASUN SOZIALA ETA DENBORAREN ANTOLAKETA

Erronka: Ordaindutako lan-denboraren eta ordaindu gabekoaren arteko banaketa desorekatua desagerraraztea.

Aukera: Kontziliazio erantzunkiderako neurriak sustatzea (guraso-baimen parekideak, zaintza-zerbitzuak, ordutegi arrazionalak) eta aldaketa kultural soziala eta antolakuntzakoa sustatzea, erantzunkidetasunera bideratzeko.

Bestalde, sailek **Eusko Jaurlaritzaren esparruan egiten den lanarekin** eta **Euskadin Soldata-Arrakala Murrizteko Estrategiaren eta haren Ekintza Plan Eragileen garapenarekin estuki** lotuta dauden erronka batzuk identifikatu dituzte. Gobernantzari, koordinazioari, komunikazioari, aliantzei, ikuspegiari, ezarpenari, jarraipenari edo iraunkortasunari lotuta daude.

Gobernantza estrategikoarekin lotutako erronkak

- 2026-2030erako III. Ekintza Plan Eragilearen gobernantza-eredua finkatzea, **lidergo egonkor eta jarraituarekin**, soldata-arrakala murrizteko politikekin jarraitu ahal izateko, eta ikuspegi estrukturala eta ibilbide luzekoa lortzeko aurrerapausoak eman ahal izateko.
- Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren eta Emakunderen arteko **erantzukizunen banaketa**, funtzioak eta erabaki-arloak definitzea, erreferentzialtasun argia ezarriz soldata-arrakalarekin lotutako neurrientzako zuzendaritza estrategikoan, jarraipenean eta ebaluazioan.
- **Lidergo partekaturako** eredua ezartzea bi organismoen artean, Estrategiaren zeharkakotasuna indartzeko eta politika ekonomikoetan, laboraletan eta berdintasunekoetan integratzeko.
- **Gobernantza-sistema aktiboa eta parte-hartzailea** garatzea, koordinazio estrategikorako espazioak eta sailei, organismo autonomoei eta erakunde publikoei laguntzeko mekanismoak uztartuz, soldata-arrakalaren aurkako neurriak modu eraginkorrean integratzeko.
- Gobernantza-ereduan aurreikusitako koordinazio-mekanismoak **modu sistematikoan aktibatzea eta dinamizatzea**, aldizkako bileren plangintza ezarriz, aurrez definituak baina malguak izan daitezen, aurrerapausoen eta zailtasunen etengabeko jarraipena egiteko.

Koordinazioarekin eta zeharkakotasunarekin lotutako erronkak

- **Sailarteko koordinazioa indartzea**, soldata-arrakalari erantzun integrala emateko eta jarduketa isolatuak ekiditeko.
- Emakunderen eta Ekonomia, Enplegu eta Lan Sailaren eta Gobernuko sailen arteko harremana eta **koordinazio zuzena** ezartzea.
- Arloan esperientzia maila desberdina duten sailen arteko koordinazioa sustatzea, **elkarrekin ikasteko** eta ordainsarien berdintasunaren arloko jardunbide egokiak transferitzeko **espazioak** sortuz.
- **Aurrekontuaren koordinazioa** indartzea, soldata-arrakala murrizteko eta konpromiso ekonomiko koherentea eta helburu estrategikoekin bateragarria sustatzeko egindako ahalegin globalaren ikuspegia edukitzeko.
- Estrategia zuzentzen dutenen artean eta sailetako barne-unitateen artean **koordinazio operatiboa** bermatzea, neurrien ezarpen homogeneoa eta eraginkorra ziurtatzeko.

- **Barne-koordinaziorako** moduak definitzea sail bakoitzean; aurreikusten diren neurrien sustapen egokia bermatzeko, informazioa partekatzeko eta neurri horiek hobetzeko eta garatzeko espazioak sortzeko.

Komunikazioarekin, sentsibilizazioarekin eta ezarpen sozialarekin lotutako erronkak

- **Komunikazio instituzionalaren** estrategia indartzea, Estrategiaren aurrerapenak, emaitzak eta inpaktuak sistematikoki zabaltzeko, gardentasuna handitzeko eta kontuak emateko.
- Enpresei, eragile sozialei eta herritarrei zuzendutako **sentsibilizazio-jarduerak** intentsifikatzea, soldata-arrakalaren egiturazko kausak eta hura ikuspegi erantzunkidetik jorratzeko beharra lantzeko.
- Emaitzen **komunikazio publikoa** sustatzea, **enpresa-ehunduraren eta ehundura sozialaren inplikazioa handitzeko** eta neurrien inpaktua ikusarazteko.
- Estrategia **jardunbide egoki** gisa posizionatzea beste lurralde eta administrazio batzuetan, soldata-arrakalaren aurkako borrokan lidergo instituzionala indartzeko metodologiak, ikaskuntzak eta emaitzak partekatuz.

Aliantzekin eta erantzunkidetasunarekin lotutako erronkak

- **Aliantza publiko-pribatuak** indartzea soldata-arrakala modu egituratuan jorratzeko, enpresak, eragile sozialak, hirugarren sektoreko erakundeak eta erakunde espezializatuak aktiboki inplikatuz.
- Soldata-berdintasunaren arloan lan egiten duten **sare eta organismo nazionalekin eta nazioartekoekin lankidetza sustatzea**, ezagutza, berrikuntza metodologikoak eta esperientzia konparatuak trukatzeko.
- **Enpresa-ehunduraren inplikazioa** sustatzea ordainsarien berdintasunaren arloko neurriak ezartzeko garaian, konpromiso boluntarioak, jardunbide egokiak eta informazioaren berri emateko sistema aurreratuak sustatuz.

Ikuspegi estrategikoarekin eta begirada partekatuarekin lotutako erronkak

- Soldata-arrakalaren **ikuspegi komuna** finkatzea, jarduketa publikoaren alde guztietatik erantzun integrala eskatzen duen egiturazko arazo gisa ikusteko.
- **Estrategiak** sail eta erakunde guztientzako **jarduketa-esparru komun** gisa duen rola indartzea, eta soldata-berdintasunarekiko sentibera izango den kultura instituzionala bultzatzea.
- Soldata-arrakala murrizteko helburua agenda publikoaren barruan lehenesteko **konpromiso politiko eta instituzionala** hartzea, ikuspegi partekatua sortuz administrazioko maila guztien artean.
- 2026-2030eko III. Ekintza Plan Eragileko **helburuen, adierazleen eta lehentasunen ulermen partekatuan** sakontzea, jarrera proaktiboak sustatzeko plan horren ezarpenean.
- Arlo horretan sentsibilizatzea eta estrategiaren eta berdintasun-politiken balioa arlo guztietan finkatzeko **pedagogia instituzionala** egitea, pertsona guztiek uler dezaten duen garrantzia eta apelatuta senti daitezen.
- **Soldata-arrakalari,** ordainsarien berdintasunari eta genero-ikuspegia duen analisiari buruzko **prestakuntza espezializatua** eskaintzea, eta lantalde teknikoei neurriak planifikatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko tresna egokiak ematea.
- 2026-2030erako III. Ekintza Plan Eragilearekin lotutako neurriak **sailetako eta organismoetako berdintasun-planetan** modu sistematikoan integratzen direla bermatzea.

Eraginkortasunarekin eta ezarpenarekin lotutako erronkak

- Gaitasun Eragilea indartzea, soldata-arrakala murrizteko konpromiso estrategikoak esku-hartzen duten sektore guztietako **jarduketa zehatzetara, homogeneoetara eta ebaluagarrietara** eramateko.
- **Azterketa-tresna errazak, azkarrak eta irisgarriak** diseinatzea, ordainsarietan dauden desberdintasunak identifikatzen eta erabakiak hartzen laguntzeko.
- **Laguntza teknikorako sistemak** ezartzea sailei eta erakundeei, soldata-arrakalaren arloko neurri, adierazle eta ekintza-plan espezifikoak definitzeko.
- Lanerako **metodologia komunak** ezartzea, plangintza eraginkorra izateko eta ebaluazio konparatua egiteko.

Jarraipenarekin, ebaluazioarekin eta datuekin lotutako erronkak

- Estrategiaren inpaktuaren **aldizkako ebaluazioak** sistematizatzea, sexuaren eta beste desberdintasun-ardatz batzuen arabera bereizitako datuen analisia gehituz.
- **Informazioaren berri emateko sistemak finkatzea eta enpresek datuak eskuragarri izatea,** soldata-arrakalaren neurketa fidagarriak eta alderagarriak egin ahal izateko.
- Etengabeko **jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak** ezartzea, ordainsarien berdintasun-politikak ezartzeko garaian aurrerapenak, oztopoak eta hobetzeko arloak identifikatzeko.

Jasangarritasunarekin eta baliabideekin lotutako erronkak

- **Aurrekontu-konpromiso egonkorra** eta nahikoa bermatzea, soldata-arrakala murrizteko neurriak finkatu ahal izateko eta neurri horiekin jarraitu ahal izateko.
- Estrategiaren ezarpenera, jarraipenera eta ebaluaziora bideratutako **baliabide teknikoak eta giza baliabideak** izatea.
- **Neurrien jasangarritasun instituzionala** bermatzea, eta horiek estrukturalki integratzea politika publikoetan.
- **Laguntza teknikorako egitura iraunkorrak** finkatzea, epe ertain eta luzerako soldata-berdintasunerako politiken ezarpen eraginkor eta jarraitua indartzeko.

5. ERREFERENTZIA MARKOA

2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen erreferentzia marko nagusia, Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko Estrategia da. Estrategia honen bidez lortu nahi da 2030ean Euskadik soldata-diskriminazioarik gabeko euskal lan-merkatu bat izatea da, eta aldi berean, soldata-arrakala txikiena duten Europako herrialdeen artean egotea eta ordainsari-berdintasunarekin erabat konprometituta dagoen gizartea izatea (herritarrak eta eragile instituzional, sozial eta ekonomikoak), berdintasunean oinarritutako hezkuntza batetik eta garatutako berdintasun-balioekin koherenteak diren gizarte-portaerak oinarri hartuta.

Bere erronka nagusiak honako hauek dira:

- ✓ Soldata-diskriminazioa ezabatzea.
- ✓ Okupazio-segregazioa murriztea.
- ✓ Berdintasunean oinarritutako eta berdintasunerako hezkuntzan sakontzea.
- ✓ Zainketen gizarte-antolaketa berri bat bultzatzea, zainketen hornidura birbanatzeko.
- ✓ Euskal gizarte osoa helburu horretan sentsibilizatzea eta konprometitzea.

Gainera, Euskadin Soldata-arrakala Murrizteko Estrategiak epe ertain eta luzerako elementuak planteatzen eta konbinatzen ditu, eta helburu gisa ezartzen du Euskadi soldata-arrakala txikiena duten Europako herrialdeen artean kokatzea 2030erako, epe laburrerako plan operatiboak zehaztearekin batera, emakumeen eta gizonen arteko soldata-berdintasun handiagoa lortzera bideratutako helburu espezifikoekin eta neurriekin batera. Estrategia hori bultzatze aldera, hainbat ekintza-plan operatibo egin dira.

Plan horietan oinarrituta, inplikatutako Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomoek neurriak hartu dituzte Euskadin Soldata-arrakala Murrizteko Estrategian ezarritako jarraibide eta helburu espezifiko nagusiak bultzatzeko, emakumeen eta gizonen arteko soldata-berdintasun handiagoa lortze aldera.

2020ko I. Ekintza Plan Eragileak 60 neurri biltzen ditu guztira 2019-2021 aldirako, Estrategia egituratzen duten lau ardatzetan bilduta. 2022-2025 II. Ekintza Plan Eragileak 74 neurri ditu ardatz guztietan eta 2022-2025 aldia hartzen du. Estrategiak, gainera, berariaz jasotzen ditu Emakumea Industriara Sartzeko Plana-PIMI bat bultzatzeko neurriak eta 2022-2025 II. Ekintza Planean jasotako 74 neurrietatik 23 plan horri buruzkoak dira.

5.1 Estrategian eta orain arte burututako Ekintza Plan Eragileetan jasotako Helburuak

Ikuspegi hori lortzeko hainbat helburu planteatzen dira epe labur eta ertainera:

Elementuak	Epe labur / ertaineko helburuak	
	2020 I Plan Eragilea epe laburrera	2022-2025 II Plan Eragilea epe ertainera
Soldata-arrakala (emaitza orokorra)	▪ Soldata-arrakala zuzena murriztea. • Zeharkako soldata-arrakala murrizten duten neurriak abian jartzea.	▪ Soldata diskriminazio zuzena erabat murriztea. • Zeharkako soldata-arrakala erabat murriztea.
Soldata-gardentasuna	▪ Gure lan-merkatuan soldata-gardentasuna ezartzeko mekanismoak abian jartzea. • Enpresarik handienetan gardentasuna lortzea.	▪ Gure lan-merkatuan soldata-gardentasuna ezartzeko mekanismoak aplikatu eta zabaltzea. • Ordainsarien gardentasuna bermatzea 50 langile baino gehiagoko enpresetan
Kontziliazio erantzunkidea	▪ Jarduketa onen balioa nabarmentzea eta zabaltzea ▪ Kontziliazio erantzunkidearen formula berriak esperimentatzen dituzte proiektu pilotuak abian jartzeko apustua babestea, batez ere sektorerik tradizionalenetan edo hasiera batean errazagoa dirudienetan. • Zaintzen arloko erantzunkidetasunaren kultura arlo guztietan (hezkuntzan, aisialdian eta denbora librean, lanean...) eta modu koordinatuan lantzen jarraitzeko oinarriak finkatzea.	▪ Jarduketa onen balioa nabarmentzen eta zabaltzen jarraitzea ▪ Zaintzen arloan benetako erantzukizun soziala sustatzea, gizonak, erakunde publikoak eta enpresak hein handiagoan inplika daitezen, enpleguan emakumeek eta gizonek baldintza berdinetan parte har dezaten lortzeko. ▪ Zaintzen arloko erantzunkidetasunaren kultura arlo guztietan (hezkuntzan, aisialdian eta denbora librean, lanean...) eta modu koordinatuan lantzen jarraitzea.
Enpleguaren segregazio bertikala	▪ Eskola orientaziorako eta bokazionalerako mekanismoak sakon berrikustea, etorkizunean enpleguan bereizketa txikiagoa egon dadin. ▪ Emakumeak tradizionalki maskulinizatuta egon diren sektore eta lanbideetara sar daitezen sustatzeko proiektu pilotuak ezartzea. • Emakumeek erabakitzeko arloetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea.	▪ Eskola-orientaziorako eta orientazio bokazionalerako mekanismoak hobetzen jarraitzea, askatasunetik eta genero-baldintzarik gabe, etorkizunean enpleguen segregazio txikiagoa izateko oinarriak finkatzeko. ▪ Emakumeak tradizionalki maskulinizatuta egon diren sektore eta lanbideetara sar daitezen sustatzea. ▪ Emakumeek erabakitzeko arloetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea.
Gizarte-kontzientziazioa	▪ Gizarte osoa, eta zehazki enpresen eta sindikatuen arloa, kontzientziatzea soldata-arrakala murrizteko erronka jorratzeko beharraz, eragile adierazgarri guztien adostasuna eta konpromisoa lortuz. • Antolaketa- eta enpresa-kultura lerrokatzea, berdintasuna balio sozial gisa aitor dadin, eta zaintza bizitzari eusteko ezinbesteko baldintzatzat eta ekonomiaren eta gizarte-antolaketaren elementu nagusitzat har dadin.	▪ Gizarte osoa, eta zehazki enpresen eta sindikatuen arloa, kontzientziatzen jarraitzea soldata-arrakala murrizteko erronka jorratzeko beharraz, eragile adierazgarri guztien adostasuna eta konpromisoa lortuz. ▪ Antolaketa- eta enpresa-kultura lerrokatzea, berdintasuna balio sozial gisa aitor dadin, eta zaintza bizitzari eusteko ezinbesteko baldintzatzat eta ekonomiaren eta gizarte-antolaketaren elementu nagusitzat har dadin.

5.2 Estrategia gidatzen duten Ardatzak

Lortu nahi diren helburuak lortzeko, Estrategia, elkar indartzen diren 4 ardatz jardueratan egituratzen da eta hauek, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murrizteko konpromisoa islatzea bilatzen dute. Era berean, ardatz bakoitzak soldata-arrakalari aurre egiteko estrategian zehaztutako helburuak lortzeko hainbat gidalerro estrategiko jasotzen ditu:

- 1.Ardatza: Soldata/ordua desberdintasuna murriztea (5 gidalerro).
- 2.Ardatza: Lanaldiari dagokionez desberdintasuna murriztea (7 gidalerro).
- 3.Ardatza: Heziketa eta gizarte sentsibilizazioa (4 gidalerro).
- 4.Ardatza: Enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioa (4 gidalerro).

ARDATZAK	BETE NAHI DITUEN HELBURUAK
E1. SOLDATA/ORDUA DESBERDINTASUNA MURRIZTEA	Emakumeek lan egindako ordu bakoitzeko ordainsari txikiagoa jasotzeko pertzepzioan eragina duten faktoreen gainean jardutea, eta zehazki: ▪ Soldata-diskriminazio zuzena desagerraraztea, bai informazio- eta sentsibilizazio-neurrien bidez, bai beharrezkoak diren ikuskapen-, kontrol- eta zigor-neurrien bidez. Horretarako, enpresak eta langileak erabat kontziente izan behar dira sexuagatik lan-diskriminaziorik ez pairatzeko duten eskubideaz. ▪ Okupazioaren bereizketa murriztea, Euskadiko gazteen hezkuntza- eta lan-ibilbideen aukeraketan parekidetasun handiagoa lortuz batez ere. ▪ Emakumeek erabakitzeko arloetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea.
E2. LANALDIARI DAGOKIONEZ DESBERDINTASUNA MURRIZTEA	Emakumeek lan produktiboan ordu gutxiago ematearen gainean eragiten duten faktoreetan jardutea. Izan ere, horren ondorioz ordainsari txikiagoak dituzte. Zehazki, honen gainean: ▪ Gizartea sentsibilizatzea, bereziki gizonak, erantzunkidetasun handiagoa lortzeko aurrerapausoak egiteari buruz, eta egun denboraren erabileran dagoen arrakala murriztea. ▪ Euskadiko enpresa-ehundurak gizonen eta emakumeen berdintasunarekin eta kudeaketa aurreratuarekin duen konpromisoa sustatzea, emakumeek lan-merkatuan erabateko parte-hartzea izan dezaten ahalbidetzeko funtsezko elementu gisa. ▪ Besteak beste, lanaldi partzialek edo epe jakin bateko kontratuek soldata-berdintasunean duten inpaktua murriztea.
E3. HEZIKETA ETA GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA	▪ Administrazioen eta sektore publikoaren trakzio-bultzada baliatzea *soldata-arrakala murrizten laguntzeko zuzeneko edo zeharkako neurriak sustatzeko.* ▪ Soldata-arrakalaren aurka abian jarritako neurrien ezarpena monitorizatzea, eta ikerketarako arlo indartsua gehitzea, neurri horien inpaktua ebaluatu ahal izateko eta lan-ildo berriak abian jartzeko. Aldi berean, Euskadiko gizartea sentsibilizatu behar da desberdintasunen eta soldata-arrakalaren gaineko arazoaz.
E4. ENPRESEN ETA SINDIKATUEN SENTSIBILIZAZIOA	▪ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erabat txertatzea Euskadiko enpresen estrategian, talentuaren garrantzia eta guztiok (emakume zein gizon) enpresa lehiakorragoak eta sozialki arduratsuagoak sortzeko egin dezakegun ekarpena nabarmentzeko eta sustatzeko.

5.3 Estrategian txertatutako Gidalerroak

Ardatz bakoitzak ildo edo orientabide estrategikoak jasotzen ditu erronkei erantzuteko eta 2030eko Soldata Arrakalaren aurkako Estrategian zehaztutako helburuak lortzeko. Honako taula honetan jasotzen dira:

ARDATZA	KOD.	GIDALERROA
1 Ardatza **SOLDATA/ ORDUKO DESBERDINTASUNA MURRIZTEA**	1.1	Sexuagatiko balizko soldata-diskriminazioak zuzentzeko ikuskapen-kopurua handitzea
	1.2	Langileei sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez izateko eskubidearen berri ematea eta zeharkako diskriminazio-egoerak salatzera animatzea
	1.3	Orientazio-jarduera bokazionala indartu eta hobetzea, Euskadiko gazteek ibilbide profesionala aukeratzeko garaian informazio gehiago eta genero-estereotiporik gabea izan dezaten.
	1.4	Ikasketa tekniko eta teknologikoetan emakume gehiago izan daitezen sustatzeko pizgarriak eskaintzea
	1.5	Emakumeek erabakitzeko arloetan eta zuzendaritzan duten presentzia eta eragina handitzea.
2 Ardatza **LANALDIARI DAGOKIONEZ DESBERDINTASUNA MURRIZTEA**	2.1	Laneko iruzurraren aurkako borroka intentsifikatzea
	2.2	Euskal enpresa eta erakunde publikoetan kontziliazio erantzunkidearen kultura handiagoa eta jarduketak sustatzea
	2.3	Herritarrak, eta bereziki gizonak sentsibilizatzea etxeko zereginen eta pertsonen zaintzaren erantzunkidetasunarekiko.
	2.4	0 eta 3 urte bitarteko eskolatzearen sustapena.
	2.5	Euskadiko administrazio publikoaren kontziliazio erantzunkidean sakontzea
	2.6	Kontziliazioa errazteko, ordutegien arrazionalizazioa
	2.7	Kontziliazio erantzunkidea sustatzen duten zerbitzuak eta pizgarri ekonomikoak handitzea, emakumeak lan-merkatutik ateratzea ekiditeko eta haien jarduera-tasa hobetzeko.
3 Ardatza **HEZIKETA ETA GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA**	3.1	Haurtzarotik eta bizitza osorako berdintasunean oinarritutako heziketa sustatzea (berdintasuneko etengabeko prestakuntza)
	3.2	Arazoa monitorizatu ahal izateko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaeraren jarraipena egiteko ikerketa-dinamika txertatzea.
	3.3	Jarraibideak garatzeko egin diren aurrerapausoak eta abian jarritako neurri bakoitzak izandako inpaktu erreala ebaluatzea
	3.4	Soldata-arrakala murrizteak gure herrialdeari ematen dion balioa sozialki helaraztea
4 Ardatza **ENPRESEN ETA SINDIKATUEN SENTSIBILIZAZIOA**	4.1	Soldata-arrakalaren aurka zuzenean eta zeharka borroka egiteko neurriak dituzten enpresa eta erakunde publikoetan berdintasunerako planak orokortzea
	4.2	Genero-arrakalarik ez duen eta pertsonen garapenean laguntzen duen kudeaketa aurreratuan sakontzea.
	4.3	Soldata-gardentasuna sustatzea
	4.4	Kontratazioan klausula sozialak erabiltzea, soldata-arrakala murrizteko aurrerapausoak egiteko.

6. 2026-2030 III. EKINTZA PLAN ERAGILEA

2026-2030 III. Ekintza Plan Eragile hau egiteko, aurreko Planek zuten antzeko egitura mantendu da, Estrategian eta aurreko Ekintza Plan Eragileetan jasotako helburu estrategikoak, ardatzak eta gidalerroak indarrean daudelako. Horrela, 4 ardatz eta 20 gidalerro izango dira etorkizunean aurreikusitako 90 neurri baino gehiago egituratuko dituztenak.

Laburbilduz, 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragileak honako egitura du:

6.1 Parte hartzen duten, Sail, Erakunde autonomo eta erakunde publikoak

Sailek eta erakunde autonomoek Euskadin soldata-arrakala murrizteko estrategian izan duten parte-hartzea aldatuz joan da indarrean egon den bitartean, eta estrategia eta horietako bakoitza ezartzeko plan batetik bestera, sail gehiago batzen joan dira[1].

2026-2030 III. Ekintza Plan Eragile honi begira, berrikuntza gisa, adierazi behar da lehen aldiz eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak hala erabakita[2], Batzorde horretan ordezkatuta dauden sail, erakunde autonomo eta erakunde publiko guztiek parte hartu beharko dutela, eta neurriak identifikatzeko eta betearazteko gomendioa dutela, hona hemen:

- Lehendakaritza eta Emakunde eta Lankidetzarako eta eLankidetza (sailari atxikitutako organismo autonomoak)
- Justizia eta Giza Eskubideak Saila
- Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila eta Eustat, Osalan eta Lanbide (sailari atxikitutako organismo autonomo eta erakunde publikoak)
- Hezkuntza Saila
- Zientzia, Unibertsitatea eta Berrikuntza Saila
- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila
- Ogasun eta Finantzak Saila
- Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua Saila eta IVAP (sailari atxikitutako organismo autonomoa)
- Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna Saila
- Osasun Saila eta Osakidetza (sailari atxikitutako erakunde publikoa)
- Mugikortasun Jasangarria Saila eta Euskal Trenbide Sarea (sailari atxikitutako erakunde publikoa)
- Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila
- Segurtasun Saila eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia (sailari atxikitutako organismo autonomoa)

---

[1] 2020ko Lehen Ekintza Plan Eragilean honako sail hauek parte hartu zuten: Lehendakaritza (Emakunderekin), Lan eta Justizia Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Hezkuntza Saila, Ekonomia eta Ogasun Saila, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.

2022-2025 II. Ekintza Plan Eragilean, aldiz, honako sail hauek parte hartu zuten (aurreko Planean parte hartu zutenak, gehi Osasun Sailak, Osakidetzaren bitartez, eta Emakundek, erakunde autonomo gisa), Lehendakaritzak, Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide, sail horri atxikitako organismo autonomoa), Berdintasun, Justizia eta Giza Politiketako Sailak, Hezkuntza Sailak, Ekonomia eta Ogasun Sailak, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Osasun Sailak, Osakidetzaren eta Emakunderen bitartez (Berdintasun, Justizia eta Giza Politiketako Sailari atxikitako organismo autonomoa).

[2] 18/2024 DEKRETUA, ekainaren 23koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Eusko Jaurlaritzako sailen osaera berregituratzeko dena

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila eta HABE (sailari atxikitutako organismo autonomoa)
- Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila

6.2 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilean jasotako Helburu Estrategikoak

Estrategian jasotako epe luzerako helburuak bat datoz 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen eta baita Estrategiaren azken fasean lortu beharreko helburuekin:

Orokorrean **Soldata Arrakalari** dagokionean, bilatzen da:

- Soldata diskriminazio zuzena erabat murriztea.
- Zeharkako soldata-arrakala erabat murriztea.

Ordainsarien gardentasunarekin, lortu nahi da:

- Gardentasuna Euskadiko enpresa guztietara zabaltzea, tamaina edozein dela ere.

Kontziliazio Erantzunkideari lotuta, espero da:

- Kontziliazio-neurriak Euskadiko enpresa gehienetara zabaltzea, tamaina eta sektorea edozein izanik ere.
- Denboraren erabilerak orekatzeko aurrerapauso esanguratsuak egitea, erantzunkidetasunaren gaineko kontzientzia duen gizartearen gainean eta zaintza-lanen birbanaketa parekidera bideratuta.

Aldi berean, **segregazio bertikalari** dagokionean, bilatzen da:

- Lanbide heziketan eta unibertsitatean okupazioaren bereizketa nabarmen murriztu dadin lortzea, enplegura sartzeko desberdintasunak murriztu ahal izateko funtsezko oinarri gisa.
- Emakumeen presentzia orekatua lortzea erabakiak hartzen diren arloetan eta zuzendaritzan, bai arlo pribatuan, bai publikoan.

Azkenik, **kontzientziazio sozialaren** inguruan, nahi da:

- Soldata-arrakalaren aurkako borroka erabat txertatuta izatea helburu sozial gisa. Izan ere, aurrerapausoak egin diren arren, ezinbestekoa da epe luzera begira lanean jarraitzea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako planak txertatuta izatea enpresetan.
- Kontziliazio erantzunkiderako planak txertatuta izatea enpresetan.

6.3 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilean txertatutako neurriak

2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilean neurri berriak definitzeko eta txertatzeko orduan, parte hartu duten sail, organismo autonomo eta erakunde publiko desberdinengandik irizpide hauek jarraitu dira:

- Neurriek lotura izan behar dute Estrategian jasotako lau ardatz edo eta jarraibideetako batekin.
- Neurriek lotura zuzena izan dezakete soldata-arrakala ezabatzearekin (ikuskapenak egitea soldata-arrakalak murrizteko, soldata-arrakala desagerrarazteko araudi espezifikoa, kontziliazio-neurriak, etab.) edo zeharkakoa (gaiari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa, emakumeek zuzendaritza-postuetan duten presentziari buruzko azterlanak, etab.)
- Neurriaren helburuen artean, soldata-arrakalaren murrizketarekin lotuta dagoen bat behintzat jaso behar da.
- Proposatutako neurriek aurrekontu bat esleituta izan behar dute.
- Neurri batzuek eragin nabarmena izan dezakete biztanleriaren bolumen handian; beste batzuek, berriz, eragin txikiagoa izan dezakete zenbakietan, baina garrantzitsuak izan daitezke soldata-arrakala murrizteko. Zentzu honetan, Planak honakoekin lotutako neurriak jasotzen ditu: prestakuntza (espezifikoa soldata- eta genero-arrakalari buruz), sentsibilizazioa (kanpainak, jardunaldiak eta ekitaldiak), araudia (estatutuak aldatzea, hitzarmenak hobetzea, klausula espezifikoak sartzea...), hainbat sektoretan arrakalan eragiten duten faktoreei buruzko azterketak eta azterketak, soldata-arrakalan eragina duten alderdiekin lotutako laguntzak eta diru-laguntzak, hala nola kontziliazio erantzunkidea edo berdintasun-diagnostikoak eta -planak egitea.

Neurri bakoitzaren fitxak, jasotzen duen informazioa honakoa da: Testuinguru estrategikoa (ardatza eta gidalerroa), Sail arduraduna, Trakzio-ekimenarekin lotura[3], aurreikusitako exekuzio-aldia, Neurriaren deskribapena, Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea/rola (egongo badira), Aurreikusitako aurrekontua, Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak eta azkenik, neurriarekin loturiko intereseko dokumentazioa.

[3] Trakzio-Ekimenak, Estrategian jasotako jarduera-eremu nagusien inguruan garatutako ekimenak dira, gobernuaren plangintza-esparru estrategikoekin zerikusia dutenak, aurrekontuetan eragina dutenak, eragileen arteko elkarrizketa eragiten dutenak eta herritarrengan eragina dutenak. Hona hemen trakzio-ekimenen sei jarduera-eremu nagusiak: INSPEKZIOA, KONTZILIAZIOA, HEZKIDETZA, SENTSIBILIZAZIOA, BERDINTASUN PLANAK eta ARAUDIA.

Berdintasunerako Sailarteko Batzordean ordezkaritza duten Eusko Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomoek eta erakunde publiko guztiek, plan honi lotutako neurriren bat proposatu dute, horrela, bere konpromisoa erakutsiz.

Oro har, soldata-arrakala desagerrarazteko neurriak aktibatzeko ibilbide luzeena duten sailek neurri gehiago dituzte, eta lehen aldiz parte hartzen dutenen kasuan, berriz, neurri kopurua proportzionalki txikiagoa da. Neurri gehien dituzten sail edo organismo autonomoak Emakunde, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailak dira.

SAIL ETA ORGANISMO BAKOITZEKO NEURRIAK (ZENB ETA %)

SAILA/ ERAKUNDEA	AURREIKUSITAKO NEURRIAK GUZTIRA Zenb.	%
Emakunde	15	16,5
Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	14	15,4
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila	8	8,8
Osakidetza	5	5,5
Hezkuntza Saila	4	4,4
Ogasuna eta Finantzak Saila	4	4,4
Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua Saila	3	3,3
Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila	3	3,3
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	3	3,3
Mugikortasun Jasangarritasun Saila eta Euskal Trenbide Sarea	3	3,3
Segurtasun Saila	3	3,3
Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila	3	3,3
HABE	3	3,3
IVAP	3	3,3
Departamento de Ciencias, Universidades e Innovación	2	2,2
Justizia eta Giza Eskubide Saila	2	2,2
Departamento de Salud	2	2,2
Departamento de Turismo, Comercio y Consumo	2	2,2
EUSTAT	2	2,2
LANBIDE	2	2,2
Lehendakaritza	2	2,2
Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna Saila	1	1,1
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	1	1,1
eLankidetza	1	1,1
GUZTIRA	**91**	**100,0**

Iturria: 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen diseinu eta osaketan, Sail eta Erakunde Publiko eta Autonomoek helarazitako informazioa.

Sail, organismo autonomo eta erakunde publiko berrien parte-hartzearen ondorioz, nabarmen handitu da 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilean jasotako neurrien kopurua, aurreko bi Ekintza Plan Eragileekin alderatuta. Azken Plan honetan, 91 neurri jaso dira guztira, eta horietatik % 27,5-a 1. eta 4. ardatzetan kokatuta, 3. ardatzean, neurrien %26,4a kokatzen dira, eta gainerako neurrien % 18,7-a berriz, 2. ardatzean. Hala, neurri gutxien dituen ardatza da (17 neurri).

Jarraian, neurri guztiak aurkezten dira, ardatzen eta neurri horiek ezartzeko ardura duen sailaren, organismo autonomoaren edo erakunde publikoaren arabera.

NEURRIEN TAULA OROKORRA

Ardatza	Neurri Kod.	III Ekintza Plan Eragilean jasotako Neurria	Sail /Erakunde Arduraduna
1	1.1.1.	LAN IKUSKARITZAREN ORDAINSARI-BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO PLANA	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
1	1.1.2	ORDAINSARI-BERDINTASUNAREN ARLOKO BERARIAZKO PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK, LAN-IKUSKAPENEKO LANGILEENTZAT	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
1	1.2.1	IZAN DAITEZKEEN ORDAINSARI-DISKRIMINAZIOEN BERRI EMATEKO POSTONTZI BIRTUALA	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
1	1.2.2	SEXUAN OINARRITUTAKO SOLDATA-DISKRIMINAZIORIK EZAREN ESKUBIDEARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO- ETA INFORMAZIO-KANPAINAK (BATEZ ERE BERDINTASUN PLANAK EGITEKO DERRIGORTASUNA EZ DUTEN ENPRESA TXIKIEI ZUZENDUTA)	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
1	1.2.3	BERDINTASUN-ESKUBIDEEN DEFENTSA	Emakunde
1	1.2.4	LAN IKUSKARITZAREKIN KOORDINATU SOLDATA ARRAKALAREKIN LOTUTA DAUDEN KASUAK BIDERATEKO.	Emakunde
1	1.2.5	NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ARAUDI BERRIA AZTERTZEA, AGINDU GARRANTZITSU BERRIAK IDENTIFIKATZEKO, ZABALTZEKO ETA GARATZEKO	Emakunde
1	1.2.6	TURISMO-ENPRESETAN GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK EZABATZEKO ESKU-HARTZEAK EZARTZEA	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
1	1.3.1	IRAKASLE ORIENTATZAILEEI ETA TUTOREEI ZUZENDUTAKO ETENGABEKO PRESTAKUNTZA-ESKAINTZA DISEINATZEA, IKASLEEKIN ETA FAMILIEKIN IBILBIDE AKADEMIKO ETA PROFESIONALAK AUKERATZEKO LANA HOBETZEKO	Hezkuntza Saila
1	1.4.1	GENERO-IKUSPEGIA DUTEN STEM LANBIDE-ASPIRAZIOAK ETA STEM LANBIDE-ASMOAK SUSTATZEA – STEAM EUSKADI HEZKUNTZA-ESTRATEGIA	Hezkuntza Saila
1	1.4.2	EMAKUME LANGABEAK PRESTATZEKO ETA LANBIDE MASKULINIZATUETAN KONTRATATZEKO PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZAK	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
1	1.4.3	LAN-BITARTEKARITZA EZ-SEXISTA	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
1	1.5.1	SEKTORE PUBLIKOKO ZUZENDARITZA-POSTUETAN ETA ADMINISTRAZIO-KONTSEILUETAN EMAKUMEEN PRESENTZIARI BURUZKO AZTERKETA	Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua Saila
1	1.5.2	EMAKUMEEN EKINTZAILETZA SUSTATZEA ETA ENPRESETAKO ETA ERAKUNDEETAKO ZUZENDARITZA-ORGANOETAN EMAKUMEEN TALENTUA SARTZEA	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
1	1.5.3	ERABAKI POSTUEN ESTALDURA SISTEMATIZATZEA ZERBITZU ERAKUNDE GUZTIETAN, IRIZPIDE HOMOGENEOEKIN, ZUZENDARITZA ETA ERABAKI POSTUETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN KOPURUA ORDEZKATZEN DUEN ORDEZKARITZA LORTZEKO AHALMENA MUGATZEN DUTEN GENERO JOERAK DETEKTATZEKO	Osasun Saila-Osakidetza
1	1.5.4	"SEKTORE MASKULINIZATUETAN EMAKUMEEN KONTRATAZIOA SUSTATUKO DUTEN LIZITAZIO-PROZESUAK DEFINITZEA	Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila
1	1.5.5	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INDUSTRIA-ENPRESETAKO ZUZENDARITZA-POSTUETAN ETA ADMINISTRAZIO-KONTSEILUETAN EMAKUMEEN PRESENTZIA AREAGOTZEKO EKINTZAK	Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna Saila
1	1.5.6	TRADIZIOZ MASKULINIZATUTA DAUDEN MAILA HANDIAGOKO LANPOSTUETAN EMAKUMEAK SAR DAITEZEN SUSTATZEKO PROGRAMA BAT SORTZEA.	Mugikortasun Jasangarria Saila-Euskal Trenbide Sarea
1	1.5.7	MENTOREAK ESLEITZEA OPERAZIO-TALDEEN BARRUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIA-KIDEGOEN BARRUAN TRADIZIOZ MASKULINIZATUTAKO LANPOSTUETARAKO EMAKUMEZKOEN HAUTAGAITZAK SUSTATZEKO	Segurtasun Saila
1	1.5.8	EUSKAL ADMINISTRAZIOAREN BARRUAN ERANTZUKIZUN HANDIAGOKO LANPOSTUAK LORTU NAHI DITUZTEN EMAKUME ENPLEGATU PUBLIKOENTZAKO BARNE MENTORIAKO PROGRAMA	IVAP

Ardatza	Neurri Kod.	III Ekintza Plan Eragilean jasotako Neurria	Sail /Erakunde Arduraduna
1	1.5.9	EMAKUMEAK ERTZAINTZAKO AGENTEAREN OINARRIZKO ESKALAN DUTEN PRESENTZIA HANDITZEA	Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia
1	1.5.10	EMAKUMEEN ENPLEGUAREN ETA JABETZAREN BALDINTZEN KONTRATAZIOA ETA HOBEKUNTZA SUSTATZEA MERKATARITZA- ETA TURISMO-ESTABLEZIMENDUETAN.	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
1	1.5.11	LURRAREN GAINEKO TITULARTASUNA ETA EMAKUMEEI EKOIZPEN-BALIABIDEAK ESKURATZEN LAGUNTZEA, OZTOPO LEGAL, NOMATIBO ETA SOZIALAK EZABATUZ.	Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila
1	1.5.12	IKERKETA PROIEKTU ETA TALDEETAN EMAKUME IKERTZAILEEN LIDERGOA BULTZATZEA	Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Saila
1	1.5.13	KONGRESU ETA BATZAR ZIENTIFIKOETAN EMAKUMEEN PRESENTZIA ETA ERAGINA SUSTATZEA	Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Saila
2	2.1.1	EMAKUMEEN KOLEKTIBOAN LAN-KONTRATAZIOKO MODALITATEEI BURUZKO LAN IKUSKARITZAREN EKINTZEN INDARTZEA	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
2	2.1.2	BERDINTASUNAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA SUSTATZEA GIZARTE-ARLOKO ERAGILEEN ARTEAN	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
2	2.1.3	ENPRESETAN LANGILEAK HAUTATZEKO, MAILAZ IGOTZEKO ETA LANPOSTUAK BALORATZEKO PROZESUETAN SISTEMATIZAZIO ETA GARDENTASUN HANDIAGOA, ELKARRIZKETA SOZIALAREN BITARTEZ	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
2	2.2.1	ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK, BIZITZA PERTSONALAREN, FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDERAKO NEURRIAK INPLEMENTA DITZATEN	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila
2	2.2.2	HAUTAKETA ETA HIZKUNTZA PROBETAN SEXUARENGATIK DISKRIMINAZIO EZA BERMATZEA	IVAP
2	2.3.1	GURASOTASUN POSITIBOKO PROGRAMAK, GIZONAK ADINGABEEN ZAINTZAN GEHIAGO INPLIKA DAITEZEN	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila
2	2.3.2	GIZONDUZ 2030 ESTRATEGIA	Emakunde
2	2.3.3	ZAINTZAREN BALIOARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila
2	2.3.4	ZAINLAB ESTRATEGIA INDARTZEA ETA ANTZERAKO PROGRAMAK ZABALTZEA, SILVER ECONOMY-AKO SEKTORE BERRIETAN	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
2	2.3.5	ERAKUNDE- ETA FAMILIA-ZAINTZAREN GARRANTZIARI ETA ERANTZUNKIDETASUNARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila
2	2.3.6	ERAKUNDEAK HELDUEN EUSKARA IRAKASKUNTZARAKO ERABILTZEN DITUEN PLATAFORMETAN GAI HONI BURUZKO GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA EGITEA	HABE
2	2.5.1	EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN TELELANEKO ESPERIENTZIEK IZAN DUTEN INPAKTUAREN EBALUAZIOA, TELELANA EGOKITZE ALDERA	Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua Saila
2	2.5.2	"OSAKIDETZAKO LANGILEAK ERABILTZEN DITUZTEN KONTZILIAZIO-NEURRIEN INFORMAZIO-SISTEMAN ERREGISTRO SISTEMATIKOA HOBETZEA, NEURRIEN AZTERKETA INTEGRALAGOA EGIN AHAL IZATEKO	Osasun Saila -Osakidetza
2	2.7.1	BIZITZA PERTSONALAREN, FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDERAKO LAGUNTZAK, 14 URTE BAINO GUTXIAGOKO ADINGABEAK ZAINTZEKO PERTSONAK KONTRATA DAITEZEN	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila
2	2.7.2	KONTZILIAZIORAKO GAUR EGUNGO LAGUNTZA-ZERBITZUAK EZAGUTZEKO AZTERKETAK BULTZATZEKO DIRU LAGUNTZAK	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila
2	2.7.3	ZAINTZA- ETA/EDO GAINKARGA-EGOERA DESEGOKIEI HELTZEKO ZERBITZUAK EDO JARDUERAK BULTZATZEA	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila
2	2.7.4	GIZONEK ZAINTZAK BERE GAIN HARTZEKO EKINTZA POSTIBOEN BULTZATZEA	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila
3	3.1.1	BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA ESTRATEGIA 2026: III. HEZKIDETZA PLANA INPLEMENTATZEA ETA JARRAIPENA EGITEA	Hezkuntza Saila
3	3.1.2	IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA, HEZKIDETZA-EREDUEN ARABERA	Hezkuntza Saila
3	3.1.3	GENERO-ARRAKALARI BURUZKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZEA SAILETAKO POLITIKARIEI ETA TEKNIKARIEI	IVAP

Ardatza	Neurri Kod.	III Ekintza Plan Eragilean jasotako Neurria	Sail /Erakunde Arduraduna
3	3.1.4	LANGILE GUZTIEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK BARNE HARTZEN DITUEN PRESTAKUNTZA-ESKAINTZA HANDITZEA, EUSKARAREN ERABILERA SUSTATUZ ETA ZUZENDARITZAKO LANGILEAK ETA ERDI-MAILAKO ARDURADUNAK SARTUZ	Osasun Saila-Osakidetza
3	3.2.1	SOLDATA-ARRAILEAN ERAGINA DUTEN FAKTOREEI BURUZKO IKERKETA SEKTORIALA BULTZATZEA	Emakunde
3	3.2.2	SOLDATA ARRAKALA OROKORRAREN BILAKAERAREN AZTERKETA ETA SEXUAREN ARABERA BEREIZITAKO KATEGORIEN ARABERA, FAKTORE ZUZENAK ETA ZEHARKAKOAK IDENTIFIKATUZ NEURRIAK PROPOSATUZ.	Osasun Saila-Osakidetza
3	3.2.3	EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE, ORGANISMO AUTONOMO ETA ENPRESA PUBLIKO NAGUSIETAKO SOLDATA-ARRAKALAREN DIAGNOSTIKOA	Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua Saila
3	3.2.4	"050408: LAN-KOSTUEN INKESTA" ESTATISTIKA-ERAGIKETAREN GARAPENA	EUSTAT
3	3.2.5	"173402: ERRENTA PERTSONAL ETA FAMILIARRAREN ESTATISTIKA" ERAGIKETAN ADIERAZLE BERRIEN LORPENA AZTERTZEA	EUSTAT
3	3.2.6	GENERO-IKUSPEGIA EUSKADIKO GARRAIOAREN SEKTOREAN ZENBATERAINO TXERTATZEN DEN AZTERTZEA	Mugikortasun Jasangarria Saila-Euskal Trenbide Sarea
3	3.2.7	GENERO-IKUSPEGIA SISTEMATIKOKI TXERTATZEA SAILAREN ANALISI EKONOMIKOETAN, KOIUNTURAKO PRODUKTUETAN ETA IKERKETETAN, SOLDATA-ARRAKALAREN NEURKETA ETA JARRAIPENA INDARTUZ	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
3	3.3.1	SOLDATA-ARRAKALAREN AURKAKO PLANAREN BERARIAZKO NEURRIEN AURREKONTU-JARRAIPENA	Ogasuna eta Finantzak Saila
3	3.3.2	EUSKALTEGI PRIBATUEN IRAKASLEEN LAN-BALDINTZAK HOBETZEKO HABEK EMATEN DITUEN DIRULAGUNTZEN EMAITZEN ERAGINA AZTERTZEA.	HABE
3	3.3.3	JAZARPENAREN ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO EUSKAL BEHATOKIARI LAGUNTZA EMATEA SOLDATA-ARRAILEAN ERAGINA DUTEN GENERO-DISKRIMINAZIOARI BURUZKO DIBULGAZIO- ETA ANALISI-LANAK EGITEKO	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
3	3.4.1	SOLDATA-ARRAKALA EZABATZEKO edota MURRIZTEKO ERRONKAREKIKO GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOKO JARDUKETAK	Emakunde
3	3.4.2	ORDAINSARI-BERDINTASUNAREN ARLOKO JARDUNBIDE EGOKIEN DIBULGAZIOAN ETA EZARPENEAN OINARRITUTAKO NAZIOARTEKO EKINTZA BULTZATZEA	Lehendakaritza
3	3.4.3	LAN MERKATUAN SOLDATA ARRAKALA ETA GENERO ARRAKALARI BURUZKO AZTERLANA EGUNERATZEA (EMAKUNDEREKIN LANKIDETZAN)	Lehendakaritza
3	3.4.4	ETXEBIZITZA GENERO IKUSPEGITIK ESKURATZEA BULTZATZEA	Etxebizitza eta Hiri-Agenda Saila
3	3.4.5	GENERO-IKUSPEGIA LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-PLANGINTZAKO TRESNETAN, HIRI-BERRONERATZEKO PROZESUETAN ETA ETXEBIZITZA-ERAIKUNTZAN TXERTATZEKO NEURRIAK EZARTZEA	Etxebizitza eta Hiri-Agenda Saila
3	3.4.6	EMAKUMEEK GARRAIOAREN SEKTOREAN DUTEN ZEREGINA ERAKUSTEN DUTEN KANPAINAK ETA JARDUERAK ANTOLATZEA	Mugikortasun Jasangarria Saila-Euskal Trenbide Sarea
3	3.4.7	EMAKUMEEK LANDA-EREMUAN DUTEN PRESENTZIARI BURUZKO KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA.	Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila
3	3.4.8	BAI SAREA – EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN SAREA KUDEATZEA	Emakunde
3	3.4.9	EMAKUMEEK OSASUN ESPARRUAN DUTEN BALIOA ERAKUSTEN DUTEN KANPAINAK ETA JARDUERAK ANTOLATZEA	Osasun Saila
	3.4.10	SOLDATA ARRAKALA MURRIZTEKO KONGRESUAREN BATERAKO ANTOLAKETA	Emakunde
4	4.1.1	ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN BERDINTASUN-PLANAK EGITEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK	Emakunde
4	4.1.2	ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAK EGIN DAITEZEN BULTZATZEA, ELKARGI ETA LUZAROREN BITARTEZ	Ogasuna eta Finantzak Saila
4	4.1.3	ENPRESEI ARRETA ETA AHOLKU EMATEKO ZERBITZUA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA BULTZATZEKO	Emakunde
4	4.1.4	GENEROARI BURUZKO AHOLKULARITZA EMATEA KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIAKO ENPRESEI, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN-PLANAK ETA -PROIEKTUAK EGITEKO	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
4	4.1.5	JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN BERDINTASUNERAKO II PLANAREN EBALUAKETA ETA III. PLANAREN ELABORAZIOA	Justizia eta Giza Eskubide Saila
4	4.1.6	EUSKO JAURLARITZAKO SEGURTASUN SAILEKO LAN-KONTRATUKO LANGILEEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA	Segurtasun Saila
4	4.1.7	ERTZAINTZAREN I BERDINTASUN PLANA	Segurtasun Saila
4	4.1.8	GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEA ETA INTEGRATZEA	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
4	4.2.1	GENERO-IKUSPEGIA AINTZAT HARTZEN DUEN KUDEAKETA AURRERATUA SUSTATZEA	Emakunde
4	4.2.2	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN AITORMENA	Emakunde

Ardatza	Neurri Kod.	III Ekintza Plan Eragilean jasotako Neurria	Sail /Erakunde Arduraduna
4	4.2.3	ERAKUNDEETAN BERDINTASUNERAKO DIAGNOSTIKOAK ETA PLANAK EGITEKO ETA ORDAINSARI-BERDINTASUNA SUSTATZEKO PRESTAKUNTZA-MATERIALAK ETA - EKINTZAK EGITEA ETA/EDO EGUNERATZEA	Emakunde
4	4.2.4	KIROL LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN BARRUAN EMAKUMEZKOEN EKITALDIETAKO LIGAK ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZAK	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
4	4.2.5	GOI MAILAKO EMAKUME KIROLARIAK PLANTILLETAN SARTU NAHI DITUZTEN ENPRESAK EDO ERAKUNDEAK IDENTIFIKATZEA, ETA LANKIDETZA ESPEZIFIKOAK ZEHAZTEA. (BALORETAN BAT PROGRAMA)	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
4	4.2.6	URRIAREN 15EKO 8/2015 LEGEA, EMAKUMEEN ESTATUTUARI BURUZKOA, EMAKUME NEKAZARIAK BETETZEKO JARDUERAK	Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila
4	4.3.1	GENERO-IKUSPEGIA ZEHARKA INTEGRATZEA, ORDAIN-SARIEN GARDENTASUNA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEA	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
4	4.3.2	ELKARRIZKETA SOZIALERAKO MAHAIKO GENERO BERDINTASUNEKO LANTALDEKO LEHENDAKARITZAREN ONDORIOZKO JARDUKETAK	Emakunde
4	4.3.3	BERDINTASUNA NAHITAEZKO IRIZPIDE GISA SARTZEA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAN ETA ENPRESA-BATZORDEETAN ETA BAITA HITZARMEN KOLEKTIBOETAKO GENERO-INPAKTUAREN TXOSTENAK ERE	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila
4	4.3.4	ESPETXEETAKO LANGILE- KIDEGOEN ARTEKO ORDAINSARI-ERREGISTRO BAT EGITEA	Justizia eta Giza Eskubide Saila
4	4.4.1	KONTRATU, DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENETAN GENERO-IKUSPEGIA INTEGRA DADIN SUSTATZEA	Emakunde
4	4.4.2	BERDINTASUNAREKIN LOTUTAKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK BARNE HARTZEN DITUZTEN ZERBITZU-ESPEDIENTEEN EHUNEKOA HANDITZEA. 34/2024 ERRESOL. ARAUAREN BETETZE-MAILAREN JARRAIPENA.	Osasun Saila-Osakidetza
4	4.4.3	SOLDATA-BERDINTASUNAREN KLAUSULAK SARTZEA eLANKIDETZAKO KONTRATAZIO ETA DIRULAGUNTZETAN	eLankidetza
4	4.4.4	KONTRATAZIO PUBLIKOAN GENERO-IKUSPEGIA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK TXERTATZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAREN APLIKAZIOA	Osasun Saila
4	4.4.5	ERAKUNDEAREN KONTRATAZIOAN GENERO-IKUSPEGIA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK TXERTATZEA	HABE
4	4.4.6	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATAZIO PUBLIKOAN GENERO-IKUSPEGIA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK TXERTATZEARI BURUZKO 1/2024 JARRAIBIDEARI BURUZKO PRESTAKUNTZA	Ogasuna eta Finantzak Saila
4	4.4.7	ADMINISTRAZIO OROKORREKO KONTRATAZIO-ORGANOETAN GENERO-IKUSPEGIA ETA BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK TXERTATZEKO 1/2024 JARRAIBIDEAREN EZARPEN-MAILARI BURUZKO AZTERKETA ETA BEHARREZKOA BADA, ZUZENKETA JARDUERAK EZARTZEA	Ogasuna eta Finantzak Saila

Iturria: 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen diseinu eta osaketan, Sail eta Erakunde Publiko eta Autonomoek helarazitako informazioa.

6.3.1 Planaren 1go Ardatzean txertatutako Neurriak: Soldata/ordua desberdintasuna murriztea

1.1.1 LAN IKUSKARITZAREN ORDAINSARI-BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO PLANA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.1 Gidalerroa: Sexuagatiko balizko soldata-diskriminazioak zuzentzeko ikuskapen-kopurua handitzea					
Ardura duen Saila:	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila - Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza – Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai IKUSKARITZA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Lan ikuskaritzaren berariazko kanpainak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa guztietan 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuek ezarritako lan-betebeharrak betetzen direla zaindu dadin (901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituena eta laneko hitzarmenen eta akordioen erregistroari eta gordailuari buruzko 713/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 28koa, aldatzen duena; eta 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunari buruzkoa). Ekintza honek, Estrategian jasotako ikuskaritza trakzio-ekimenarekin lotura zuzena du.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Enpresak ▪ Sindikatuak					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide propioak	**2026:** Baliabide propioak	**2027:** Baliabide propioak	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Ikuskapen kopurua B. Arau-hausteen akta kopurua (ikuskapenen gaineko ehunekoa) C. Errekerimendu kopurua (ikuskapenen gaineko ehunekoa)			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

1.1.2 ORDAINSARI-BERDINTASUNAREN ARLOKO BERARIAZKO PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK, LAN-IKUSKAPENEKO LANGILEENTZAT						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.1 Gidalerroa: Sexuagatiko balizko soldata-diskriminazioak zuzentzeko ikuskapen-kopurua handitzea					
Ardura duen Saila:	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila - Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza – Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai IKUSKARITZA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri hori soldata-arraila murrizteko helburu nagusiarekin lotuta dago, ordainsari-berdintasunaren arloko prestakuntza-programa espekifikoak jorratu nahi baititu. Helburua da lan-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza-saioak inplementatzen jarraitzea, eta, bereziki, ordainsari-berdintasunari buruzkoak, 901 eta 902 Errege Dekretuen betetze-maila kontuan hartuta. Ekintza horrek, gainera, badu loturarik Estrategiaren ekimen bultzatzaileetako batekin, ikuskapen-ekimenarekin, hain zuzen ere, Estrategiaren hartzaileak lan-ikuskaritzako langileak baitira.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Ez daude aurreikusita.					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** kosterik gabe	**2026:** kosterik gabe	**2027:** kosterik gabe	**2028:** kosterik gabe	**2029:** kosterik gabe	**2030:** kosterik gabe
	Oharrak: Prestakuntza-programen kostua Estatuak bereganatzen du (edozer balitz, dietak izango lirateke).					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Antolatutako prestakuntza-ekintzen kopurua B. Prestakuntza-ekintza bakoitzean parte hartzen dutenen kopurua (sexuaren arabera banakatuta)			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

1.2.1 IZAN DAITEZKEEN ORDAINSARI-DISKRIMINAZIOEN BERRI EMATEKO POSTONTZI BIRTUALA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.2 Gidalerroa: Langileei sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez izateko eskubidearen berri ematea eta zeharkako diskriminazio-egoerak salatzera animatzea					
Ardura duen Saila:	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila - Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza – Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro)..*	Neurri honen artean egongo litzateke soldata-arraila murriztea, lan-iruzurraren postontzian jasotako soldata-diskriminazioaren kasuei buruzko informazioa sistematizatuz eta aztertuz, eta horrek eragina izango du. Nahiz eta a priori neurtu, Estrategian jasotako ekimen bultzatzaileetako batekin zuzenean lotuta ez egon, horrelako tresnak abian jartzeak neurri handi batean laguntzen du Euskadiko lan-esparrua eta lan-merkatua izaten, diskriminaziorik gabe.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Sindikatuak					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide propioak	**2026:** Baliabide propioak	**2027:** Baliabide propioak	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Postontzian jasotako soldata-diskriminazioaren arloko salaketen kopurua			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

1.2.2 SEXUAN OINARRITUTAKO SOLDATA-DISKRIMINAZIORIK EZAREN ESKUBIDEARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO- ETA INFORMAZIO-KANPAINAK (BATEZ ERE BERDINTASUN PLANAK EGITEKO DERRIGORTASUNA EZ DUTEN ENPRESA TXIKIEI ZUZENDUTA)						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.2 Gidalerroa: Langileei sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez izateko eskubidearen berri ematea eta zeharkako diskriminazio-egoerak salatzera animatzea					
Ardura duen Saila:	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila - Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza – Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai SENTSIBILIZAZIOA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro)..*	Neurri horren bidez, informazio-kanpainak eta sentsibilizazio-kanpainak egin nahi dira, komunikabideen bidez, sexuagatiko soldata-bereizkeriarik ez izateko eskubideari buruz. Horrez gain, ekitaldiak antolatu nahi dira (kongresua, jardunaldiak...), eta datuak bereizita, jardunbide egokiak eta administrazioko langileei, sindikatuei eta enpresa-erakundeei (berdintasun-planak erregistratzera behartuta ez dauden enpresa txikiak...) zuzendutako gomendioak argitaratu nahi dira urtero. Enpresa sentsibilizazioa 2030 Estrategiaren lau ardatzetako bat da, eta ekintza hori argi eta garbi lerrokatuta egongo litzateke estrategia horrekin.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Gizarte Eragileak ▪ Komunikazio Hedabideak					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 1.425.000€	**2026:** 285.000€	**2027:** 285.000€	**2028:** 285.000€	**2029:** 285.000€	**2030:** 285.000€
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Egindako kanpaina kopurua eta parte-hartzaileen % (sexuaren arabera banakatuta) B. Egindako ekitaldi kopurua eta parte-hartzaileen % (sexuaren arabera banakatuta) C. Praktika onak eta gomendio-giden urtero publikatzea (bai/ ez)			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

1.2.3 BERDINTASUN ESKUBIDEEN DEFENTSA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.2 Gidalerroa: Langileei sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez izateko eskubidearen berri ematea eta zeharkako diskriminazio-egoerak salatzera animatzea					
Ardura duen Saila:	Emakunde					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri honek, Sektore pribatuan sor daitezkeen sexuan oinarritutako diskriminazio-egoerei aurre egiteko aholkularitza-zerbitzua ematea du helburu. Zerbitzu horretan, kontsultei erantzuten zaie eta gomendioak ematen zaizkie pertsona fisikoei eta/edo juridikoei, diskriminazio-egoerak edo -jardunbideak zuzen daitezen. Era berean, aholkuak ematen dira Etxeko Zerbitzuaren araudiari buruz, kontziliazio-eskubideei buruz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko garaian eragin berezia duten beste eskubide batzuei buruz. Beraz, ekintza honekin sentsibilizazioa bultzatzen da emakume eta gizonen artean dagoen soldata arrakala murriztearen aldera.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Ez daude aurreikusita					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide propioak	**2026:** Baliabide propioak	**2027:** Baliabide propioak	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Egindako aholkularitza-kontsulten kopurua (pertsona fisikoaren eta/edo juridikoaren, sexuaren, adinaren eta abarren arabera bereizita) B. Emandako gomendioen kopurua (pertsona fisikoaren eta/edo juridikoaren, sexuaren, adinaren eta abarren arabera bereizita			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

1.2.4 LAN IKUSKARITZAREKIN KOORDINATU SOLDATA ARRAKALAREKIN LOTUTA DAUDEN KASUAK BIDERATEKO.						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.2 Gidalerroa: Langileei sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez izateko eskubidearen berri ematea eta zeharkako diskriminazio-egoerak salatzera animatzea					
Ardura duen Saila:	Emakunde					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro)..*	Neurri honen helburua, lan-ikuskaritzarekin koordinatzea da, soldata arrakalarekin lotuta dauden kasuak bideratzeko. Helburua lortu ahal izateko beharrezkoak izan daitezkeen bide desberdinak irekiko dira, bien arteko koordinazioa erraztuko dutenak (bilera fisikoak, komunikazio birtuala, plataforma digitala…). Ekintza honek lehenengo ardatzak bilatzen duen helburua lortzen lagunduko du, soldata-orduan egon daitekeen desberdintasunak eta diskriminazioak bistaratuz.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Lan Ikuskaritzako Zuzendariordetza (Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila)					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide propioak	**2026:** Baliabide propioak	**2027:** Baliabide propioak	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Koordinaziorako garatutako tresnak B. Bideratutako kasuak (Kopurua / %)			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

1.2.5 NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ARAUDI BERRIA AZTERTZEA, AGINDU GARRANTZITSU BERRIAK IDENTIFIKATZEKO, ZABALTZEKO ETA GARATZEKO						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.2 Gidalerroa: Langileei sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez izateko eskubidearen berri ematea eta zeharkako diskriminazio-egoerak salatzera animatzea					
Ardura duen Saila:	EMAKUNDE -Defentsoria					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE)-ren hitzarmenak, ordainsari-berdintasunaren eta soldata-gardentasunaren arloko Europar Batasunaren zuzenbideak eta etxeko sektoreari aplikatu beharreko araudia aztertzea, arau-agindu berriak identifikatzeko, zabaltzeko eta garatzeko. Neurri honen baitan, ikerketak, araudi-proposamenak, difusio materiala etab. egitea aurreikusten da.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Ez daude aurreikusita					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 75.000€	**2026:** 15.000€	**2027:** 15.000€	**2028:** 15.000€	**2029:** 15.000€	**2030:** 15.000€
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Zenbat material, tresna edo euskarri egin diren. B. Funtsezko eragileen arteko hedapena. C. Webgunean argitaratzea.			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

1.2.6 TURISMO-ENPRESETAN GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK EZABATZEKO ESKU-HARTZEAK EZARTZEA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.2 Gidalerroa: Langileei sexuagatiko soldata-diskriminaziorik ez izateko eskubidearen berri ematea eta zeharkako diskriminazio-egoerak salatzera animatzea					
Ardura duen Saila:	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri hau turismo-sektoreko enpresetan azterlan diagnostiko bat egitean datza, gizonen eta emakumeen artean gertatzen ari diren desberdintasunak azaleratzeko eta hortik abiatuta beharrezkoak diren esku-hartzeak ezartzeko, ordainsari-desberdintasunak identifikatzera bideratutako enpresei arreta berezia jarrita; beraz, 2030 Estrategiaren helburu nagusiarekin zuzenean lotutako ekintza izango litzateke.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Ez daude aurreikusita					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 6.500€	**2026:** 6.500€	**2027:** Aurreikusitako aurrekonturik gabe	**2028:** Aurreikusitako aurrekonturik gabe	**2029:** Aurreikusitako aurrekonturik gabe	**2030:** Aurreikusitako aurrekonturik gabe
	Oharrak: Azterlana 2026an egingo da, hurrengo urteetako aurrekontua ezin izan da finkatu. Aurrerago egitea espero da.					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Diagnostikoa egitea (bai/ez) B. Ezarri beharreko neurrien identifikazioa (bai / ez) C. Ezarritako neurrien %			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

1.3.1 IRAKASLE ORIENTATZAILEEI ETA TUTOREEI ZUZENDUTAKO ETENGABEKO PRESTAKUNTZA-ESKAINTZA DISEINATZEA, IKASLEEKIN ETA FAMILIEKIN IBILBIDE AKADEMIKO ETA PROFESIONALAK AUKERATZEKO LANA HOBETZEKO						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.3 Gidalerroa: Orientazio-jarduera bokazionala indartu eta hobetzea, Euskadiko gazteek ibilbide profesionala aukeratzeko garaian informazio gehiago eta genero-estereotiporik gabea izan dezaten.					
Ardura duen Saila:	Hezkuntza Saila –Hezkuntza Sailburuordetza – Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Lehenengo ardatza lortzen laguntzeko asmoz, bokazio-orientazioko jarduera indartu eta hobetzeko 1.3 jarraibidearen bidez, Hezkuntza Sailak prestakuntza-eskaintza bat garatu nahi du, honako ekintza hauek barne hartuko dituena: hezkuntza-orientazioaren arloko jardunbide egokien eta ekimen inspiratzaileen mapa bat egitea, tutoreei hezkuntza-orientazioa lantzen lagunduko dien eta baliabideak emango dizkien gida bat egitea, eta irakasgaien gaitasun espezifikoak ondorengo ikasketekin eta profil profesionalekin lotzea. Beraz, estrategikoki argi lerrokatutako neurria da.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	• Orientatzaileak • Irakasle tutoreak • Berritzegune Nagusia • Hiru lurraldeetako enpresak eta enpresa-elkarteak					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide propioak	**2026:** Baliabide propioak	**2027:** Baliabide propioak	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Sortutako materialen kopurua B. Eskainitako ikastaroen kopurua C. Parte-hartzaileen kopurua (sexuaren arabera bereizita)			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

1.4.1 GENERO-IKUSPEGIA DUTEN STEM LANBIDE-ASPIRAZIOAK ETA STEM LANBIDE-ASMOAK SUSTATZEA – STEAM EUSKADI HEZKUNTZA-ESTRATEGIA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	1.Ardatza: Soldata-orduan dagoen desberdintasuna murriztea 1.4 Gidalerroa: Ikasketa tekniko eta teknologikoetan emakume gehiago izan daitezen sustatzeko pizgarriak eskaintzea					
Ardura duen Saila:	Hezkuntza Saila- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	HEZKIDETZA-STEAM					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri honen bidez, STEM lanbideak ikasleengana hurbiltzea bultzatuko da, bereziki haur eta nerabeengana, estereotipoak modu aktiboan apurtzea eta lanbide horiei buruzko ikuspegi errealista eta hurbila ematea bilatzen duen planteamendu batetik. Era berean, topaketak sustatuko dira ikasleen eta STEMeko profesionalen artean elkarrekintza egon dadin, eta ikasleek STEMeko profesionalen rola bete dezaten sustatuko da, bai lantoki profesionaletan, bai testuinguru simulatuetan. Beraz, ekintza hori Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategian jasotako ekimen bultzatzaileetako baten ildotik joango litzateke.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Hezkuntza Zentro publiko eta pribatuak					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 1.310.000€	**2026:** 700.000€	**2027:** 610.000€	**2028:** Aurrekonturik gabe	**2029:** Aurrekonturik gabe	**2030:** Aurrekonturik gabe
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Emandako aitormen kopurua (urtero jaso eta urteka aldaraketa egin) B. Aitormenen entrega publikorako egindako jardunaldi kopurua (partaide kopururua sexuaren arabera)			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.2.3 ERAKUNDEETAN BERDINTASUNERAKO DIAGNOSTIKOAK ETA PLANAK EGITEKO ETA ORDAINSARI-BERDINTASUNA SUSTATZEKO PRESTAKUNTZA-MATERIALAK ETA -EKINTZAK EGITEA ETA/EDO EGUNERATZEA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen sentsibilizazioa 4.2 Gidalerroa: Genero-arrakalarik ez duen eta pertsonen garapenean laguntzen duen kudeaketa aurreratuan sakontzea.					
Ardura duen Saila:	Emakunde					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai BERDINTASUN PLANAK					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Erakundeetan berdintasunerako diagnostikoak eta planak egiteko metodologia eguneratzea, berdintasun-planei buruzko betebehar arauemaile berrietara egokitzeko eta horien inguruko sentsibilizazio- eta/edo prestakuntza-jarduketak egiteko. Gai horiei buruzko prestakuntza-ekintzak diseinatuko dira, 2026-2030 eperako Emakunderen atari birtualean eskaintzeko. Ekintza honek 2030eko Estrategiaren helburuan duen eragina zeharkakoa edo zeharkakoa dela esan daiteke; izan ere, ordainsari-neurrietan eragin zuzenik ez duen arren, enpresaren sentsibilizazio eta sentsibilizazio sozial handiagoa eragiten du, eta prestakuntza sustatzen du bere atariaren bidez.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Ez daude aurreikusita					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 55.000€	**2026:** 15.000 €	**2027:** 10.000 €	**2028:** 10.000 €	**2029:** 10.000 €	**2030:** 10.000 €
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Enpresetan eta erakunde pribatuetan berdintasunerako diagnostikoa eta plana egiteko metodologia eguneratua B. Tresna aurkezteko saio kopurua C. Ordainsari-berdintasuna sustatzeko sentsibilizazio- eta prestakuntza-saio kopurua D. Diseinatu eta eskainitako prestakuntza-saioen kopurua E. Saioetan eta/edo prestakuntzan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopurua	**Oharrak:**				
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.2.4 KIROL LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN BARRUAN EMAKUMEZKOEN EKITALDIETAKO LIGAK ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZAK						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.2 Gidalerroa: Genero-arrakalarik ez duen eta pertsonen garapenean laguntzen duen kudeaketa aurreratuan sakontzea.					
Ardura duen Saila:	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri honen xedea, Emakumezkoen ligak sustatzea eta orokortzea da. Honek, emakumeak profesionalizatzeko eta aitortzeko bidean kirol lehiaketa deseberdinetan urrats bat gehiago ematea suposatuko du eta baita soldata-arrakala ere murrizten laguntzen duten ordainsari-baldintzetan ere. Beraz, lotura izango du 2030 Estrategiak bilatzen duen soldata-murriztearen azken helburuarekin.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB)					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 1.450.000€	**2026:** 280.000€	**2027:** 285.000€	**2028:** 290.000€	**2029:** 295.000€	**2030:** 300.000€
	Oharrak: 2026ko aurrekontua, ondorengo urteetan mantentzea espero da.					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Emandako dirulaguntzen zenbatekoa B. Aurreko urtearekiko % mailako igoera emakumeen liga antolatuen kopuruan (guztira eta kirol motaren arabera banakatuta)			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.2.5 GOI MAILAKO EMAKUME KIROLARIAK PLANTILLETAN SARTU NAHI DITUZTEN ENPRESAK EDO ERAKUNDEAK IDENTIFIKATZEA, ETA LANKIDETZA ESPEZIFIKOAK ZEHAZTEA (BALORETAN BAT PROGRAMA)						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.2 Gidalerroa: Genero-arrakalarik ez duen eta pertsonen garapenean laguntzen duen kudeaketa aurreratuan sakontzea.					
Ardura duen Saila:	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila- Basque Team Fundazioa					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri honen bidez, goi-mailako kirolariak profesionalizatzeko laguntzak gaitzen dira, Baloretan Bat programaren bidez, neurri hau martxan dago 2021 urtetik. Laguntzen helburua da enpresetan eta erakundeetan goi-mailako emakume kirolariak baldintza egokietan kontratatzen laguntzea, eta, horrela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzea, bai eta kirol-eremuan dagoen soldata-arrakala murrizten laguntzea ere.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ **LABORAL KUTXA** eta **EUSKALTEL** patrozinatzaileaK ▪ **Fit Learning Systems** laguntzaile teknologikoa eta prestakuntzan.					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 75.000€	**2026:** 15.000€	**2027:** 15.000€	**2028:** 15.000€	**2029:** 15.000€	**2030:** 15.000€
	Oharrak: 2026ko aurrekontua, ondorengo urteetan mantentzea espero da.					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Identifikatutako enpresa eta erakunde kopurua. B. Ezarritako laguntza kopurua c. Lan-baldintzak hobetu dituzten goi-mailako emakume kirolari kopurua	**Oharrak:**				
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.2.6 URRIAREN 15EKO 8/2015 LEGEA, EMAKUMEEN ESTATUTUARI BURUZKOA, EMAKUME NEKAZARIAK BETETZEKO JARDUERAK						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.2 Gidalerroa: Genero-arrakalarik ez duen eta pertsonen garapenean laguntzen duen kudeaketa aurreratuan sakontzea.					
Ardura duen Saila:	Elikadura, Landa-Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Saila					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri handiagoan bultzatu nahi da Emakume Nekazarien Estatutuan jasotako ekintzak ezartzea, urriaren 15eko 8/2015 Legea betez. Izan ere, lege horrek emakumeek nekazaritza-sektorean jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko beharrari erantzuten dio, batez ere aitorpen profesionalari eta estimazio sozialari dagokienez, bai eta eskubide profesionalak, sozialak eta fiskalak benetan baliatzeari dagokionez ere. Diskriminazioa murriztera eta landa-eremuko emakumeen errekonozimendu soziala zaintzera bideratutako ekintza bat da. Estatutua eta Euskadiko Soldata Arrakala Murrizteko Estrategia aldi berean aplikatzeak ikuspegi juridiko integrala bermatzen du, soldata-arrakalari produkzio-baliabideen titulartasunaren, emakumeen lanaren ikusgarritasunaren, erabakiak hartzen parte hartzearen eta lehen sektorean egiturazko oztopoak ezabatzearen ikuspegitik heltzeko aukera ematen duena.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Ez daude aurreikusita.					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide Propioak	**2026:** Baliabide Propioak	**2027:** Baliabide Propioak	**2028:** Baliabide Propioak	**2029:** Baliabide Propioak	**2030:** Baliabide Propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Neurrien garapen maila B. Emakume onuradun kopurua.	**Oharrak:**				
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.3.1 GENERO-IKUSPEGIA ZEHARKA INTEGRATZEA, ORDAIN-SARIEN GARDENTASUNA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen sentsibilizazioa 4.3 Gidalerroa: Soldata-gardentasuna sustatzea					
Ardura duen Saila:	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila - Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza – Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	EZ					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri honen helburua da emakumeen eta gizonen berdintasuna Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren esparruan sortutako lantalde sektorial guztietan zeharkako ardatz gisa txertatzeko koordinazioa hobetzea. Elkarrizketa Sozialaren bidez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren arloko negoziazio kolektiboaren edukiak hobetzea lortu behar da, soldata-arraila murrizten joateko. Era berean, negoziazio kolektiboaren bidez, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzeko neurriak ezar daitezke enpresetan, soldata-arrakala ezabatzeko.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Gizarte Eragileak					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 375.000€	**2026:** 75.000€	**2027:** 75.000€	**2028:** 75.000€	**2029:** 75.000€	**2030:** 75.000€
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Genero-eraginari buruzko txostenarekin berrikusitako hitzarmen kolektiboen kopurua B. Txostenaren ondoren berdintasun-klausulak dituzten hitzarmenen % C. Ebaluatutako berdintasun-planen kopurua D. Soldata-arrakala murrizteko neurri espezifikoak dituzten hitzarmen kolektiboen %			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.3.2 ELKARRIZKETA SOZIALERAKO MAHAIKO GENERO BERDINTASUNEKO LANTALDEKO LEHENDAKARITZAREN ONDORIOZKO JARDUKETAK						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen sentsibilizazioa 4.3 Gidalerroa: Soldata-gardentasuna sustatzea					
Ardura duen Saila:	Emakunde					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai SENTSIBILIZAZIOA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko Genero Berdintasuneko Lantaldearen bilkurak koordinatzea, babestea eta dinamizatzea, honako hauek sustatzeko: negoziazio kolektiboan benetako berdintasuna sartzea; enpresetan berdintasun-planak bultzatzea; eta, orobat, estrategiaren beraren garapena, ekarpenak eta jarraipena eta Lantaldearen esparruan adostutako jarduketen inplementazioa.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide Propioak	**2026:** Baliabide Propioak	**2027:** Baliabide Propioak	**2028:** Baliabide Propioak	**2029:** Baliabide Propioak	**2030:** Baliabide Propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Osatutako genero-inpaktu txosen kopurua			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.3.4 BERDINTASUNA NAHITAEZKO IRIZPIDE GISA SARTZEA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAN ETA ENPRESA-BATZORDEETAN ETA BAITA HITZARMEN KOLEKTIBOETAKO GENERO-INPAKTUAREN TXOSTENAK ERE						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen sentsibilizazioa 4.3 Gidalerroa: Soldata-gardentasuna sustatzea					
Ardura duen Saila:	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila - Laneko eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza – Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai ARAUDIA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Berdintasuna nahitaezko irizpide gisa sartzea negoziazio kolektiboan eta enpresa-batzordeetan, eta genero-eraginari buruzko txostenak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Agintaritzari aurkezten zaizkion hitzarmen kolektiboetan, gordailutu eta erregistra ditzan.Beraz, soldata-arrakala murrizten laguntzen du, enpresen eta sindikatuen sentsibilizazioaren bidez (Estrategiaren 4. ardatza).					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Gizarte Eragileak					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 204.325€	**2026:** 40.865€	**2027:** 40.865€	**2028:** 40.865€	**2029:** 40.865€	**2030:** 40.865€
	Oharrak: Urteko aurrekontua egonkor mantentzea espero da, Planaren indarraldian 2026-2030.					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Osatutako genero-inpaktu txosen kopurua			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.3.5 ESPETXEETAKO LANGILE- KIDEGOEN ARTEKO ORDAINSARI-ERREGISTRO BAT EGITEA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.3 Gidalerroa: Soldata-gardentasuna sustatzea					
Ardura duen Saila:	Justizia eta Giza-Eskubideak Saila					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Ez					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Ordainsarien erregistro zehatza egitea (osagarriak, guardiak...), baita espetxeetako langileen arteko aldeak aztertzea ere, 2026. urteari dagokionez, Euskadiko Espetxe Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten langileen ordutegi eta lan-baldintza espezifikoei buruzko Akordioak (Gobernu Kontseiluak 2025eko azaroan onartua) duen eragina aztertzeko eta behatzeko. Hau da, 2027rako helburua izango litzateke, 2026ko datuekin egin beharrekoa. Datuak lortu ondoren, 2028an eta ondorengoetan egin beharreko ekintza zuzentzaileak zehaztuko dira. Neurri horrek lotura zuzena izango luke estrategiak lortu nahi duen helburuarekin, eta sentsibilizazio sozial eta sindikalaren laugarren ardatzean kokatuta, nahiz eta erakunde publikoa izan; izan ere, neurri horrek soldata-gardentasuna bultzatuko luke, 4.3 jarraibidean.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Ez daude					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):**11.000€	**2026:** Baliabide Propioak	**2027:** 11.000€	**2028:** Baliabide Propioak	**2029:** Baliabide Propioak	**2030:** Baliabide Propioak
	Oharrak: Neurri hau baliabide propioekin egingo da, justizia administrazioko zuzendaritzen Berdintasun unitateen bitartez. Hala ere, 2027an erregistroa egingo den urtean, 11.000 euroko aurrekontua izango du.					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Espetxeetako langileen artean erregistroa egitea (bai/ez) B. Berrikusitako kontratuen kopurua			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.4.1 KONTRATU, DIRULAGUNTZA ETA HITZARMENETAN GENERO-IKUSPEGIA INTEGRA DADIN SUSTATZEA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen sentsibilizazioa 4.4 Gidalerroa: Kontratazioan klausula sozialak erabiltzea, soldata-arrakala murrizteko aurrerapausoak egiteko.					
Ardura duen Saila:	Emakunde					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai SENTSIBILIZAZIOA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Kontratazio-prozeduretan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan genero-ikuspegia txertatzeko gaikuntza-ekintzak (prestakuntza, sentsibilizazioa, materialak egitea, etab.) diseinatu, diseinatu eta ezartzeko aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua. Aholkularitza ematen jarraituko zaie kontratazio-prozesuetan eta dirulaguntzetan emakumeen eta gizonen berdintasuna txertatzeko jarraibideak dituzten administrazio publikoko langileei, bai eta enpresei eta beste erakunde pribatu batzuei ere, kontratazio-agirietan eta/edo dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileetan berdintasun-klausulak betetzeko. Era berean, administrazio publikoko eta/edo enpresetako langileak gaitzeko hainbat ekintza jarriko dira abian, kontratazio-prozeduretan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan genero-ikuspegia txertatzeko dituzten gaitasunak handitzeko.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Ogasun eta Finantza Saila					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 85.000€	**2026:** 20.000€	**2027:** 20.000€	**2028:** 20.000€	**2029:** 20.000€	**2030:** 20.000€
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Eguneratutako material kopurua B. Egindako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzen kopurua C. Egindako aholkularitza-zerbitzuen kopurua	**Oharrak:** Neurri batzuk Emakundek betearaziko ditu, eta beste batzuk Ogasun eta Finantza Sailarekin lankidetzan.				
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:	Berdintasuna diru laguntza eta kontratu publikoetan - Gaia (euskadi.eus)					

4.4.2 BERDINTASUNAREKIN LOTUTAKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK BARNE HARTZEN DITUZTEN ZERBITZU-ESPEDIENTEEN EHUNEKOA HANDITZEA. 34/2024 ERRESOL. ARAUAREN BETETZE-MAILAREN JARRAIPENA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.4 Gidalerroa: Kontratazioan klausula sozialak erabiltzea, soldata-arrakala murrizteko aurrerapausoak egiteko.					
Ardura duen Saila:	Osasun Saila-Osakidetza-Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai ARAUDIA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2028-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Soldata-arrakalaren murrizketan aurrera egiteko helburuarekin, Osakidetza berdintasunaren inguruko esleipen-irizpideak barne hartzen dituzten zerbitzu-espedienteak handitzen saiatuko da, 34/2024 RESOLaren arabera. Beraz, enpresak sentsibilizatzeko 4. ardatzari lotutako neurria da, eta Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiak jasotzen duen ekimen bultzatzaileetako baten bidez, araudiari lotutakoa azpimarratzen da.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Emakunde. Kontratazio publikoan eta dirulaguntzetan berdintasuna sustatzeko aholkularitza-zerbitzua					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide propioak	**2026:** --	**2027:** --	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak: Neurria 2028tik aurrera ezarriko da.					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Berdintasun-esleipeneko irizpideak dituzten zerbitzu-espedienteak/zerbitzu-espediente guztien kopurua (uneko urtean ebatzitako esleipenak)			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.4.3 SOLDATA-BERDINTASUNAREN KLAUSULAK SARTZEA eLANKIDETZAKO KONTRATAZIO ETA DIRULAGUNTZETAN						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.4 Gidalerroa: Kontratazioan klausula sozialak erabiltzea, soldata-arrakala murrizteko aurrerapausoak egiteko.					
Ardura duen Saila:	eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai ARAUDIA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri honen bidez, genero-klausulak txertatzen dira kontratazio eta berdintasun-baldintza guztietan, eta genero-ikuspegia txertatzen da GGKEei eta/edo eLankidetzako erakunde laguntzaile eta elkartuei ematen zaizkien laguntza eta dirulaguntzetan. Betekizun horiek soldata-erregistro bat/ordainsari-auditoria bat eta plan zuzentzaile bat exijitzearekin lotuta egon daitezke, "puntuazio-irizpide" edo "dirulaguntzaren baldintza" gisa. Horrekin, eLankidetzak gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortu nahi du, Soldata Arrakalaren 2030 Estrategiaren ildotik. 2025-2027 Genero Berdintasunaren Aldeko Planean jasotako neurrietako bat da. Bere helburuen artean, 11.-na Genero-ikuspegia ziurtatzea eta eLankidetza egiten ari den kontratazio- eta lizitazio-prozesuetan genero-ikuspegia txertatzea da, eta 12.-na, berriz, ematen dituen laguntzei lotutako arau-esparruetan, dokumentu estrategikoetan eta eLankidetza jardueretan genero-ikuspegia txertatzea.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Emakunde. Kontratazio publikoan eta dirulaguntzetan berdintasuna sustatzeko aholkularitza-zerbitzua					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€)** Baliabide propioak	**2026:** Baliabide propioak	**2027:** Baliabide propioak	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Berrikusitako kontratu eta dirulaguntzen kopurua. B. Berdintasunari dagokionez hobetutako kontratazio eta dirulaguntzen gehikuntza guztizkoaren aldean (%)	**Oharrak:**				
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:	https://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/genero_y_desarrollo/es_def/Plan-pro-equidad-eLankidetza-2025-2027.pdf					

4.4.4 KONTRATAZIO PUBLIKOAN GENERO-IKUSPEGIA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK TXERTATZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAREN APLIKAZIOA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.4 Gidalerroa: Kontratazioan klausula sozialak erabiltzea, soldata-arrakala murrizteko aurrerapausoak egiteko.					
Ardura duen Saila:	Osasun Saila					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai ARAUDIA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri hau Osasun Sailak egindako kontratu publiko guztietan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko jarraibidea aplikatzean datza. Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiaren ekimen bultzatzaileetako batekin estrategikoki lerrokatutako neurria da, eta, horrela, estrategia horrek lortu nahi duen helburu nagusiari laguntzen dio.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Ez daude aurreikusita					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide propioak	**2026:** Baliabide propioak	**2027:** Baliabide propioak	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Berrikusitako kontratuen kopurua. B. Berdintasun-klausulak txertatuta egindako kontratuen kopurua guztizkoaren aldean (aurreko urteko hazkundearen %)			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:						

4.4.5 ERAKUNDEAREN KONTRATAZIOAN GENERO IKUSPEGIA ETA EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KLAUSULA SOZIALAK ERABILTZEA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.4 Gidalerroa: Kontratazioan klausula sozialak erabiltzea, soldata-arrakala murrizteko aurrerapausoak egiteko.					
Ardura duen Saila:	HABE					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai ARAUDIA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Erakundearen kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak eta genero ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak emango dira. Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiaren ekimen bultzatzaileetako batekin estrategikoki lerrokatutako neurria da, eta, horrela, estrategia horrek lortu nahi duen helburu nagusiari laguntzen dio.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	Ez daude aurreikusita.					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide propioak	**2026:** Baliabide propioak	**2027:** Baliabide propioak	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak:					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Berrikusitako kontratuen kopurua.			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:				*Klausulak kontratuetan araudia Instrukzioa.pdf*		

4.4.6 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATAZIO PUBLIKOAN GENERO-IKUSPEGIA ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK TXERTATZEARI BURUZKO 1/2024 JARRAIBIDEARI BURUZKO PRESTAKUNTZA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.4 Gidalerroa: Kontratazioan klausula sozialak erabiltzea, soldata-arrakala murrizteko aurrerapausoak egiteko.					
Ardura duen Saila:	Ogasuna eta Finantzak Saila					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai ARAUDIA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Neurri hau 1/2024 jarraibidearekin lotutako klausula sozialei buruzko prestakuntza-ekintzak garatzean datza. Bi prestakuntza-ildo egingo dira: A. Kontratazioan klausula sozialen modulu espezifiko bat eskaintzea IVAPen bitartez. Modulu hori Kontratazio Publikoko Ibilbidearen parte da, eta Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde autonomoetako kontu-hartzaileei, auditoreei eta kontratazio-teknikariei zuzenduta dago. B. Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko 1/2024 jarraibidearekin lotutako kontrol ekonomiko-fiskaleko zerbitzuko langileei prestakuntza ematea. Ikastaroarekin 1/2024 Jarraibidearen interpretazio eta aplikazioan sakondu nahi da, kontratazio-espedienteen esku-hartzeari begira.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza ▪ Kontrol Ekonomikoko Bulegoa					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** 1.100€	**2026:** 1.100€	**2027:** Aurreikusitako aurrekonturik gabe	**2028:** Aurreikusitako aurrekonturik gabe	**2029:** Aurreikusitako aurrekonturik gabe	**2030:** Aurreikusitako aurrekonturik gabe
	Oharrak: Aurrekontua prestakuntza-ikastaroari dagokio (B. neurria). Modulu espezifikoak ez du kosturik, sailak edo organismo autonomoak arduratzen baitira prestakuntzaren kostuaz, beren aurrekontu propioarekin.					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Moduluan parte hartzen duten pertsonen kopurua, sexuaren, urtearen eta profilaren arabera bereizita B. Ikastaroa ematea: bertaratuak, edukia, faktura.		**Oharrak:**			
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:			*https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/04/2401563a.pdf*			

4.4.7 ADMINISTRAZIO OROKORREKO KONTRATAZIO-ORGANOETAN GENERO-IKUSPEGIA ETA BERDINTASUNERAKO KLAUSULAK TXERTATZEKO 1/2024 JARRAIBIDEAREN EZARPEN-MAILARI BURUZKO AZTERKETA ETA BEHARREZKOA DENEAN ZUZENKETA JARDUERAK EZARTZEA						
III. EKINTZA PLAN ERAGILEA						
Testuinguru estrategikoa:	4.Ardatza: Enpresen eta Sindikatuen Sentsibilizazioa 4.4 Gidalerroa: Kontratazioan klausula sozialak erabiltzea, soldata-arrakala murrizteko aurrerapausoak egiteko.					
Ardura duen Saila:	Ogasuna eta Finantzak Saila					
Trakzio-ekimenarekin lotura:	Bai ARAUDIA					
AURREIKUSITAKO EXEKUZIO-ALDIA:	2026-2030					
2026-2030	**NEURRIAREN DESKRIBAPENA**					
Abian jarriko den neurriaren deskribapena: *Lortu nahi diren helburuak eta aurreikusitako jarduera nagusien deskribapen laburra egitea (gutxienez 5 lerro).*	Informazioa lortu nahi da Administrazio Orokorreko kontratazio-organoak Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko 1/2024 Jarraibidea zein neurritan erabiltzen ari diren jakiteko. Informazio horri esker, instrukzio horren ezarpen-maila aztertu ahal izango da, baita hura erabiltzean izan ditzaketen zailtasunak ere. Datuak aztertu ondoren, beharrezko neurri zuzentzaileak hartzeko aukera emango du. Zehazki, jarraibideak kontratazio publikoan berdintasun-klausulak sartzean izan duen eragina aztertzea eta lortutako emaitzen arabera, jarraitu beharreko jarduerak zehaztuko dira.					
Hirugarren aldeen edo eragile laguntzaileen parte-hartzea / rola (egongo badira):	▪ Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza ▪ Zerbitzu Zuzendaritza					
Aurreikusitako aurrekontua:	**Aurreikusitako aurrekontua GUZTIRA (€):** Baliabide propioak	**2026:** Baliabide propioak	**2027:** Baliabide propioak	**2028:** Baliabide propioak	**2029:** Baliabide propioak	**2030:** Baliabide propioak
	Oharrak: Neurri honetan jasotako jarduerak Administrazioko baliabide propioekin egitea aurrikusten da.					
Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak:	A. Kontratazioan berdintasun-klausulak eta klausula tipoak txertatzearen bilakaera B. Aurretiazko analisia egin ondoren abian jarritako neurri zuzentzaileak. Hala badagokio, beharrezko aurrekontua.			**Oharrak:**		
Neurriari buruz dauden dokumentuen edo esteken erreferentzia:				*https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/04/2401563a.pdf*		

7. GOBERNANTZA EREDUA

7.1 Aurrekariak

Gobernantza eredu eraginkor bat ezartzea, non Planaren jarraipena eta ebaluazioa funtsezko osagaitzat hartzen diren, edozein tresna estrategikoren koherentzia, eraginkortasuna, gardentasuna eta etengabeko hobekuntza bermatzeko beharrezkoa da. Hori dela eta, Euskadin Soldata Arrakala murrizteko 2030 Estrategiaren baitan, definitu berri den 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen bultzada, jarraipen eta ebaluazio-sistema espezifiko bat ezartzea beharrezkoa da, bere garapena monitorizatzeko, aurrerapenak aztertzeko eta hobetu daitezkeen arloak detektatzeko.

Aldi berean, hiru plan hauetan, sail eta organismo autonomoen partaidetza ere aldatzen joan da, eta plan batetik bestera, Estrategia eta Planaren ezarpenerako sail gehiago batzen joan dira, hala nola, 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilean Eusko Jaurlaritzako sail, erakunde autonomo eta erakunde publiko guztiek parte hartuko dute, Sailarteko Berdintasun Batzordean hartutako erabakiaren arabera.

7.2 Justifikazioa

Urteroko Estrategiaren ebaluaketa eta jarraipen prozesuan eta baita egin berri den aurreko bi Plan Eragileen ebaluaketa prozesuaren ondoren, Gobernantza sistemaren eredua indartzea eta hainbat hobekuntza ezartzea aproposa dela ondorioztatzen da. Beraz, orain arteko Gobernantza ereduan, etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren aldaketak egin dira eredu aktibo eta parte-hartzaileago bat bilatzeko helburuarekin.

Alde batetik, Sailarteko Berdintasun Talde Teknikoaren (SATT) bitartez, 2022-2025 II. Ekintza Plan Eragilearen ezarpenerako koordinazio espazioaren funtzioak bete ohi izan dituena, eta bestetik, Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko 2030 Estrategiaren bultzadan parte izan duten eta parte izango duten Lehendakaritza, Emakunde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailaren bitartez, ebaluaketa teknikoa egin eta hobekuntzak proposatu dira..

7.3 Helburuak

Eredu honen helburua, 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen inplementazioan parte-hartzaile eta eragileei beharrezkoa den laguntza eskaintzea da eta bertan jasotako neurriak aurreikusitakoaren arabera ezartzen direla ziurtatzea, zehaztutako helburu estrategikoen betetze-maila baloratzea eta prozesuan zehar erabakiak hartzeko informazio erabilgarria eskaintzea. Era berean, faktore bideratzaileak edo mugatzaileak identifikatzeko eta etorkizuneko plangintzetarako ikaskuntza garrantzitsuak sortzeko aukera emango du.

Zehazki, proposatzen den Gobernantza ereduaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Koordinazio eta antolamendu-egiturarik egokiena definitzea.
- Estrategia eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen ezarpena, monitorizazioa, jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistematika ezartzea.
- Parte hartzen duten eragileen artean ahalik eta koordinazio handiena bermatzea, batez ere zuzenki parte hartzen dutenen artean (eragile sozialak, ekonomikoak, etab.).
- Estrategiaren eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen indarraldian (aldagai sozial edo ekonomikoetan eman daitezkeen aldaketei aurre egiteko) ekintza zuzentzaileak hartzeko beharra hautematea.
- Eragile sozial, ekonomiko eta orokorrean baita gizarteari ere, helburuen eta gidalerroen bilakaerari eta lortutako lorpenei buruz, ahalik eta gardentasun handiena ahalbidetzea.

7.4 Gobernantzarako egitura instituzionalak

Guzti honi erantzuteko, Soldata Arrakala Murrizteko 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilean proposatzen den gobernantza ereduak honako egiturak izango ditu:

- Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila: Estrategia eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilea bultzatu eta koordinatu
- Emakunde: Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari aholkua eman eta koordinazioan lagundu
- Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko Genero Bedintasunaren Taldea: Estrategia eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen ezarpenari buruzko informazioa jaso.

Eta Prozesu hori aurrera eramateko, bi organo edo koordinazio tresna osagarri eratuko dira: Estrategiaren eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen Batzorde Politiko-Teknikoa eta Talde Teknikoa.

Horiek izango dira urtero hobekuntzak koordinatu, aztertu eta proposatzeko arduradunak, jarraian deskribatuko diren egitura eta eginkizunen arabera.

	Batzorde Politiko-Teknikoa	Talde Teknikoa
OSAERA	▪ Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuordea. ▪ Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza. ▪ Emakundeko zuzendaria. ▪ Emakundeko Idazkari Nagusia. ▪ Emakundeko Lankidetza Instituzionaleko arloburua, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko berdintasunerako unitate administratiboa	▪ Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko berdintasunerako administrazio-unitatea. ▪ Emakundeko Lankidetza Instituzionaleko Arloko burua
EGINKIZUNAK	▪ Bateratzeko eta proposamenak egiteko gune bat izatea, sinergiak sortzeko, Estrategiaren eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen kudeaketa eta emaitzak optimizatzeko. ▪ Talde teknikoari lana agintzea. ▪ Batzordean eta Talde Teknikoan sartu daitezkeen kideen inguruan erabakitzea.	▪ Batzordeari laguntza ematea. ▪ Lan-talde espezifikoak sortzea beharraren arabera. ▪ Urtean zehar beharrezkoak diren prestakuntzak eta sentsibilizazio ekimenak bultzatzea. Egindako ekintzen eta erabilitako bitarteko eta baliabideen urteko jarraipen-txostena egitea.
BILKURA MAIZTUNA	▪ Gutxienez urtean bitan bilduko da.	▪ Batzorde tekniko-politikoak zehaztu beharrekoa.

8. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Gobernantza-ereduak, Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko 2030 Estrategia indarrean dagoen bitartean horren eta hiru Plan Eragileen jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistematika ezartzea bere gain hartzen du, 2030 Berdintasunerako Estrategiarekin koordinatuz.

Eredu honen helburua, neurriak aurreikusitakoaren arabera inplementatzen direla ziurtatzea da, zehaztutako helburu estrategikoen betetze-maila baloratzea eta prozesuan zehar erabakiak hartzeko informazio erabilgarria eskaintzea. Era berean, faktore bideratzaileak edo mugatzaileak identifikatzeko eta etorkizuneko plangintzetarako ikaskuntza garrantzitsuak sortzeko aukera ematen du.

Zehazki, Soldata Arrakala Murrizteko 2030 Estrategiaren eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen jarraipena eta ebaluazioa honako hauetara bideratuta daude:

- 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen ezarpena ezarritako plangintzaren arabera aurrera doala egiaztatzea.
- Zehaztutako helburu estrategikoetarantz egindako aurrerapenak aztertzea.
- Doikuntzak edo hobekuntzak eskatzen dituzten alderdiak detektatzea.
- Ekintzak birbideratzeko informazio erabilgarria lortzea, beharrezkoa izanez gero, eta emakume eta gizonen arteko soldata arrakalaren murrizketan duten eragina baloratzea.

Gobernantzaren jarraipen eta ebaluazioak informazio kuantitatiboa, ekintza eta helburu estrategikoei lotutako adierazleetan oinarritua, eta hura ezartzean sor daitezkeen esperientzietatik, ikaskuntzetatik eta ikerketetatik eratorritako informazio kualitatiboa konbinatuko ditu.

2026-2030 III. Ekintza Plan Eragile honetan, Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko 2030 Estrategian eta aurreko Plan Eragileetan bezala, hauek zenbateraino bete diren monitorizatzea eta aztertzea ahalbidetzen duten jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen sistema orokorra mantenduko da[5], egin izan diren urteko jarraipen txostenak barne. Gainera, 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilea azken plana izanik, hau amaitzean, Estrategia osoaren indarraldiaren azken ebaluazioa edo balantze orokorra egingo da.

[5] Jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen aginte-taulan 15 adierazle jasotzen dira soldata-arrakalaren testuinguruarekin zerikusia duten alderdiak eta baita Plan Eragileetan jasotako neurri zehatzen emaitzei zuzenean loturik dauden alderdiak kontuan hartzen dituztenak.

Hona hemen Soldata-Arrakala Murrizteko Estrategian jasotako jarraipen-adierazleak eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilean mantenduko direnak:

Zenbakia	Adierazlea
1	**Soldata-arrakala langile bakoitzaren urteko batez besteko irabazien arabera %**
2	**Soldata arrakala lan egindako ordu arrunt bakoitzeko%**
3	**Emakumeen % unibertsitate-arloko STEAM ikasketetako matrikulazioetan**
4	**Emakumeak industriako Lanbide Heziketako matrikulazio berrietan (Erdi-mailako graduak + goi-mailako graduak) %**
5	**Etxeko lanei eta etxeko pertsonen zaintzari egun batean eskainitako batez besteko denbora (batez besteko denbora soziala). Orduak: minutuak**
6	**Emakumeen eta gizonen aldi baterako kontratazioen tasan dagoen ehuneko aldea %**
7	**Emakumeen jarduera-tasaren eta gizonenaren arteko aldearen %**
8	**Emakumeen eta gizonen lanaldi partzialeko kontratazioen tasan dagoen ehuneko aldea %**
9	**Kontziliazioarekin eta erantzunkidetasunarekin lotutako dirulaguntza publikoen enpresa onuradunak (Kop.)**
10	**Laneko iruzurraren eta laneko diskriminazioaren gainean egindako ikuskapenak (kop.)**
11	**Soldata-diskriminazioarekin lotutako Laneko Iruzurraren aurkako Postontzian erregistratutako salaketak (kop.)**
12	**Berdintasun Planak dituzten enpresak**
13	**Soldata-arrakalaren, kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren arloan prestakuntza duten pertsonak (kop.)**
14	**Kontziliazioarekin eta erantzunkidetasunarekin lotutako dirulaguntza publikoen gizon-emakume onuradunak (Kop.) N, D, Z eta E lerroak**
15	**Enpresei egindako ikuskapenen ondorioz hobetutako kontratuak (kop.)**

Iturria: Estrategian definitutako jarraipen eta ebaluazio adierazleak.

Jarraipen eta Ebaluazio sistematika ezartzearen lanaz gain, Euskadin Soldata Arrakala Murrizteko 2030 Estrategiaren eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen eraginkortasuna handitzeko, gaitasun teknikoak garatzea beharrezkoa dela aurreikusi da. Bada, Prestakuntza eta Sentsibilizazioarekin lotutako lan ildo bat sustatuko da planeko eragileen (sail, erakunde autonomo eta publiko desberdinak) gaiarekiko duten sentsibilizazioa, trebakuntza eta gaitasuna indartzeko helburuarekin.

Aldi berean, Estrategia eta 2026-2030 III. Ekintza Plan Eragilearen gobernantzaren baitan komunikazioari indar gehiago emango zaio, bai barrura eta kanpora begira, Estrategiaren ikusgarritasuna handitzeko helburuarekin (web orrian, sare-sozialetan, sailarteko komunikazioetan, etab.).

Batetik, Euskadi mailan sail desberdinetatik egiten diren aurrerapenak eta ezarritako neurriei loturiko lorpen esanguratsuak ezagutzera emateko, gobernantzaren gardentasuna areagotuz eta baita herritarren sentsibilizazioa eta ezagutza handitzeko. Eta bestetik, beste lurralde eta herrialdeetan egiten ari diren aurrerakuntzei edo tresna baliagarriei buruz ere informatzeko (artikuluak, ikerketak, txostenak, etab.) erabiliko da.

Prestakuntza, sentsibilizazioa eta komunikazioaren indartzearekin loturiko lan ildo hauek talde-teknikotik bultzatuko dira, jarraipen batzordearen oniritziarekin.